

**K**... eta  
**Kitto!**

2020-I-17 1126 zkia.

*Arrate Bargarri*  
**Abesti sortzailea**



Toribio Etxebarria, 1

**EUKI**  
servicios inmobiliarios

20 urtetik gorako esperientzia  
eskaintzen dizuegu  
balorazioetan eta eraikinetako  
salerosketa, alokairu eta  
traspasorako bitartekotzan



**API**

bitatu gure eskaintzak web-ean  
[www.euki.com](http://www.euki.com)

**GALDETU: 943 20 03 58 / [fincas@euki.com](mailto:fincas@euki.com)**

# + osasun gida

## Dentistak



**arat**  
Horts Klinika

"Horts osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51  
info@clinicadentalarat.com  
www.clinicadentalarat.com  
Toribio Etxebarria 4-1, EIBAR

UniverSalud  
Mutua, konpainia eta kolektibo handien itundutako zentroa

R.P.S. 123/17



**bista eder**  
clínica dental - horts klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19  
www.bistaeder.es

Esku onetan egotearen ziurtasuna.  
20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



**EIBAR** HORTZ KLINIK  
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com  
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxebarria Gisasola**  
**DENTISTA**

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara  
**EGUNERO**

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



**GASTESI**  
Horts-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI  
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



**hortz-klinika**

**B. IZAGIRRE**  
clínica dental

**EGUNERO**

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



**IRAZABAL**  
clínica dental

Iribarreetan adituak  
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.  
Tfnoa. 943 20 85 52  
www.clinicairazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO**  
**ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Inplanteak

**Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896**

10 urte zurekin Eibarren

25 prestazio doan zuretzako

**VITALDENT**  
*Konpromisoa*

San Juan, 7  
943 821 885 - 690 628 731  
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa

**NATUR HOUSE**

Ainara Iriondo Ansola  
GIZA ELIKADURAN ETA  
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22  
Mugikorra: 677 551 850



## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**  
**ERREHABILITAZIOA**

- \* Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala
- \* Min-Unitatea
- \* Inkontinentzia urinarioak
- \* Kirol medikuntza
- \* Ama izeateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)  
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika



**abontza**  
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

**MEDIKUNTZA ESTETIKOA**

**KIRURGIA ESTETIKOA**

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

**Javier Martin**  
**doktorea**

Aurpegi-masailetako Kirurgilaria

**AURPEGIA GAZTETZEKO KIRURGIA**

**AURPEGIKO KIRURGIA ESTETIKOA**

679 334 371  
943 120 200

KONTSULTAK: Centro Médico Eibar  
KIRURGIAK: Policlínica Gipuzkoa



## Fisioterapeutak



**ANE MENDIA**  
970 Kolegiatu zkia.

- INDIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOIA
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

**FISIOTERAPIA ZENTRUA**

ARRAQUETA, 20  
Tf. 943 53 06 42  
ane\_mendiá@hotmail.com

## Ginekologia

Dra. Laura Martinez  Dr. Alejandro Recas

**GINECOLOGÍA EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D  
dr.recas@gmail.com  
dra.martinezgallardo@gmail.com  
www.ginecologiaeibar.com



Euskara Elkarte

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzio@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi  
eta Silbia Hernandez

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**  
J.L. Gorostegi

**ARGAZKI ARLOA:**  
Malen Jainaga  
eta Malen Illarramendi

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta Maider Aranberri

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

**TELEFONOA:** 943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Ekhi Belar

**BANAKETA-ARDURA:**  
Mohammed El Ghabali

**TIRADA:** 8.200 ale

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati)

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

– ...eta kitto! astekariko banaketa-zerrenda berrizten ari gara –

...eta kitto! astekariaren banaketa-zerrenda aktualizatzen jardungo dugu hurrengo hilabeteetan. Horretarako, Eibarko pegora bakoitzean modu errezean identifikatuko duzuen orri bat utziko dugu. Aldizkaria jasotzen hasteko edo jasotzen jarraitzeko zeuen datuak jarri beharko dituzue (izen-abizenak, solairua eta atea). Modu horretan astekariaren ba-

naketa-zerbitzua hobetu nahi dugu eta, edozein arazo izanez gero, gurekin harremanetan jar zaitezke te banaketa.etakitto@gmail.com helbidean edo 943 20 09 18 telefonon. Hurrengo asteetan San Andres, Ego Gain, Isasi, Abontza eta Zezenbide kaletan jarriko ditugu zerrendak.

...eta kitto! Euskara Elkarte

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MORDOSKA.**- Nahiko. "Haritz baten inguruan, urritx mordoskia batu neban".

**MORO.**- Azal beltzeko pertsona. "Moro mordua ziran mariñel itsasontzi hartan".

### astean esanak

"Donostia birsortu zenean Miarritze hartu zuten eredu posibletzat. Zerbitzu anitzen eredu hartu zuten: golfa, tenisa eta hipika, adibidez. Miarritzen pare, bainuetxe hiri bilakatu zen. Donostiako frantziar komunitatea gaztea zen, XIX. mendetik aurrera emakumeen presentzia handiagoarekin. Ezkongabe asko zeuden, alfabetatuak gehienak, eta ofizio bat zuten. Oro har, turismoarekin erlazioan tutako pertsonak ziren, eta erlijiosoak. Frantzia osotik etorri ziren, baina erdia-edo, Akitania ingurutik"

(BERTA ETXEBERRIA, IKERLARIA)

"Ikerketa batek zuzendu egin du orain arte txakurren eta gizakion artean indarrean zegoen adinaren parekotasunaren araua; hau da, txakurrak urtebete duenean gizakion zazpiren parekoa dela. Ikerketa horren arabera, txakurrak urtebete egiten duenean gizakion 31 urtera heltzen da. Hortik aurrera, txakurrak urteak bikoitzen dituen neurrian 11 gehitu behar zaizkio gure parekidea lortzeko: 2 egiten ditueanean, gure 42 izango dira; 4 egiten ditueanean, gure 53; eta 8 egiten ditueanean, gure 64etan egongo da. Jubilatzeke adinean, beraz. Baina 16 egiten ditueanean, ez da 75etik pasatzen. Azkar hazten da, gero moteltzeko"

(BIOIXYV ALDIZKARIA)

"Gure osasunean ez dute bakarrik genetikak eta osasun sistemak eragiten. Badira beste faktore batzuk, batez ere zahartzen goazen neurrian, gero eta indar handiagoa hartzen dutenak: heziketa maila, bizi garen auzoko ezaugarriak, dugun soldata... Euskadin, esaterako, auzo batean edo beste batean bizi izateak 11 urtetik gorako bizi-itxaropena handitu dezake, eta horrek gehiago markatzen du erretzeari lagatzeak baino. Bestalde, askotan uste dugu ejekutiboaren estres maila ezin daitekeela ona izan, baina konprobatu dugu garbitzaileena eta zaintzaileena handiagoa dela, euren laneko baldintzengatik"

(UNAI MARTIN, SOZIOLOGA)

## Hitzaldixa eta taillarra antolatu ditu DYA Gipuzkoak



DYako Irakaskuntza Eskolakuak hainbat jarduera antolatu ditu urtarrillerako. Gaur 19:00etan Lehen Sorospenen inguruko hitzaldixa emongo dabe, duan, 19:00etatik 21:00etara eta hainbat gai (itolarrixak, zaurixak, erredurak, traumatismuak, bularreko miñak, isurketak, garuneko tronbosixak, konbulsiñuak, konorte galarak...) tratauko dittue bertan. Eta urtarrillaren 25ian (zapatua), barriz, Bihotz-Biriketako Suspertze taillarra (famelixa osuarendako) emongo dabe, 16:00etatik 18:00etara. Izena emoten daben heldu bakotzeko 6 urtetik gorako hiru ume onartuko dittue gehixen jota. Taillarrak 10 euro balixo dau eta duan izango da 17 urtetik beherakuendako. Jarduera bixak Eibarko DYaren Ordezkaritzan (Pagaegi, 5ian) izango dira. Izena emoteko edo informaziño gehixago eskatzeko, 943 46 46 22 telefono zenbakira deittu edo [www.DYAgipuzkoa.com](http://www.DYAgipuzkoa.com) web orrixan begiratu leike.

## Martitzen gabeko haize bortitzak hainbat kalte eragin zittuan

Haiziak gogor jo eban martitzen gabian eta eguazten gozaldian eta, horrek eraginda, Eibarko anbulatorixuan kaltiak gertatu ziran: Toribio Etxebarria kalera emoten daben leihuetako kristal batzuk apurtu egin ziran eta eguazten gozian suhiltzailliak garabi-gaiñian ibilli ziran kristalak kentzen. Horretarako biharrak amaittu arte, badaezpada anbulatorixorako sarrera nagusiña itxi eben eta, tarteko, udaltzaiñak trafikua mozten jardun eben.

Horrekin batera, haiziak beste kalte batzuk be eragin zittuan herrixan: goizaldeko 02:00xak aldera, Ipurua zelaiko biharrak ba-

besteko hesi batzuk bota zittuan haiziak eta udaltzaiñak horrek jaso arte kalia moztuta egon zan. Eta 03:30xak aldera, barriz, haize bortitzak zuhaitz bat bota eban Txonta kalia. Zerbitzu saillari abisua pasau eta eurak arduratu ziran kalia libre lagatzeko biharrekin.



## Pensiñuen inguruko hitzaldixa emongo dau Jon Fanok 21ian



Hillaren 30eko grebaren atarixan, pensioño duiñen inguruan berba egitteko hitzaldixa antolatu dabe Eibarko Pentsionistak martitzenerako, 11:00etan Portalean. Horretarako Bizkaiko Pentsiodunen Plataformako kidia dan Jon Fano gonbidatu dabe, hitzaldixa entzutera doiazeneri gaixaren inguruko azalpenak emoteko.

## Eibar BHI institutuko loterixia kobratzeko

Ikasbidairako 78.110 zenbakidun loterixia saltzen aritu ziran Eibar BHI institutuko DBH4ko ikasliak eta bueltia tokau da. Hori dala eta, kobratzera jua nahi dabenak eguaztenetan izango dau horretarako aukeria, Ignazio Zuloaga institutuko sarreran (Jardiñeta kalia). Urtarrillaren 22 eta 29xan eta otsaillaren 5 eta 12xan jua leike bertara, arratsaldeko 18:00tatik 19:00tara.





## Neguko arratsalde gorrixa izan genduan astelehenian

Astelehen illunabarrian zeruak hartu eban koloriak irudi ikusgarriak laga zeskuezen eta askok argazkixak egitteko aprobetxau eben. Hamen dittuzuen erretratu ederrak Periko Iriondok Amañan eta Ray Muñozek Urkizun etaratakuak dira. Eskerrik asko bixeri!

# autuan

## ATE IREKIXAK

San Andres eskolakuak ate irekixen jardunaldixa antolatu dabe urtarrillaren 25erako (zapatua), ikastetxia ezagutzera jua nahi dabenedako: ikasliekin erabiltzen dabon metodologixia, instalaziñuak eta beste guztia bertatik bertara ikusteko aukeria eukiko dau jendiak, arratsalde osuan zihar.



## BIHARRAREN MEMORIXIA

Ego Ibarra batzordiak bere web orrixan eskuragarri ipiñi dittu Eibarko historixaren eta ondo egindako biharraren inguruan 2019xan jaso dittuen testigantza eder askoak. Hizlarixak Miren Arriaga Leniz (El Reno), Alberto Atxa Gonzalez (Probaderua), Felisa Solozabal Arriaga (Cil), M<sup>a</sup> Dolores Garate (El Casco), Gaspar Arizaga (Gaspar Arizaga), Jesus M<sup>a</sup> Aguirre (Helmholtz) eta Jose Antonio Laskurain (RAC) dira eta pasartiak euren ahotan entzun leikez [egoibarra.eus](http://egoibarra.eus) web orrixan.



Euskara Elkarte

Urkizu pasealekua 11, solairuartera  
 20600 Eibar (Gipuzkoa)  
 Tel: 943 20 09 18  
[elkarte@etakitto.eus](mailto:elkarte@etakitto.eus)  
[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)

## U R T A R R I L A

		1	2	3	4	5	
6	7	8	9	10	11	12	
13	14	15	16	17	18	19	
20	<b>21</b>	22	23	24	25	26	
27	<b>28</b>	29	30	31			

## O T S A I L A

					1	2	
3	<b>4</b>	5	6	7	8	9	
10	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>	<b>14</b>	15	16	
17	18	19	20	<b>21</b>	22	<b>23</b>	
24	25	26	27	28	29		

## M A R T X O A

						1	
2	<b>3</b>	4	5	6	7	8	
9	10	<b>11</b>	<b>12</b>	<b>13</b>	14	15	
16	17	18	19	20	21	22	
23	<b>24</b>	25	<b>26</b>	27	<b>28</b>	29	
30	31						



Barixakuero  
 ...eta kitto! astekaria  
 Hilero Txikitto!  
 umeen aldizkaria  
 Astero Berbetan  
 mintzapraktika  
 taldeak  
 Itzulpenak  
 eta diseinu-lanak

2020ko urtarrila-martxo  
**kultur eskaintza**

## Merixenda ederrarekin ospatu zittuen Erregiak Ipuruan



Ipurua jubilaru etxeak ondo baiño hobeto ospatu eben Errege eguna, arratsaldian merixendia hartuta. Gaiñera, parte hartzeraz animau ziranen artian 60 opariren zozketia egin eben eta Arantzazu Etxebarria Gabonetako otarraren irabazlari be sarixa emon zetsen. Bestalde, maiatzerako Calpera (Alicante) bidaia antolatzen dabilta, Poblenu bidaiekin alkarlanian: maiatzaren 24tik ekañaren 6ra bittartian izango da biajia, 3 izarretako hotelian hartuko dabe ostate, pensio osuarekin, eta prezixua 567 eurokoa da lagun baktzeko habitazio doblan eta 840 eurokoa, barriz, individualian. Erreterbak egitteko edo informazio gehixago eskatzeko jubilaru etxe bulegora juan leike.

## Udaleko azpikontrataziñuekin amaitzeko plana eskatu detse sozialisteri EH Bilduk

Eibarko Udalian pribatizauta duguaz zerbitzuak esku publikuetara bueltatzeko ordua dala pentsatzen dabe Eibarko EH Bilduk eta, horregaittik, PSE-EEri Udaleko azpikontrataziñuekin amaitzeko plana egittia eskatu detse. "Azpikontratautako zerbitzuetan lan baldintzak okerraguak eta lan gatazkak ohikuak izaten dira. Baiña zerbitzua publikatzeke ez gara bihariñak protestan etorri arte zain egon bihar, aurreikuspen gehixagorekin jokatatu biharra daguala uste dogu". Jakiñarazi dabenez, otsailletik aurrera udalaren lokalak garbitzeko zerbitzua guztiz publikua izango da, 16 urtetan pribatizauta egon eta gero: "EH Bilduk argi izan dau hasieratik hori dala jarraitu biharreke bidia eta Eibarko Udaleko azpikontrataziño mailla altuarekin amaittu bihar dala". Gogora ekarri dabenez, "etxerik etxeke aguntza zerbitzua emoteke



azpikontratautako bihariñak euren lan baldintzak duintzeko burruketan ibilli ziran oin dala hiru urte eta, garbiketarekin bezala, zerbitzu hori be esku publikuetara bueltatzeko ordua dala pentsatzen dogu".

### URTARRILA

**Urtarrilak 21, martitzena**  
 Munduko Janarien Tailerra, Nepal.  
 19:00etan Portaleko sukaldean.

**Urtarrilak 28, martitzena**  
 Tupper osasungarriak tailerra. 18:30ean  
 Portaleko sukaldean. Lekuak bete arte. 3€.

### OTSAILA

**Otsailak 4, martitzena**  
 Santa Ageda kalejira ...eta kitto!-rekin.  
 17:30ean Urkizu-Estaziño-Urkizu.  
 Amaieran mokadutxoia ...eta kitto!-n.



**Otsailak 4, martitzena**  
 Harixa Emoten literatur tertulian, Lucia Bascaranen "Gorputz madarikatuak" liburua. 19:00etan Portaleko batzartokian.

**Otsailak 11, martitzena**  
 Boltsak serigrafiatzeko tailerra.  
 18:30ean ...eta kitto!-n. 3€.

**Otsailak 12, 13 eta 14**  
 Neguko merkealdien azokan,  
 Euskeraz primeran! kanpaina  
 ...eta kitto!-ren eskutik.

**Otsailak 21, barixakua**  
 Aratosteetako pregoia. 21:00etan  
 Untzagako karpan.

**Otsailak 23, domeka**  
 Play Back  
 lehiaketa, LH 5-6  
 mailakoentzat.  
 17:00etan  
 Untzagako karpan.



### MARTXOA

**Martxoak 3, martitzena**  
 Harixa Emoten literatur tertulian,  
 Karmele Jaioren "Aitaren etxea" liburua.  
 19:00etan Portaleko batzartokian.

**Martxoak 11, eguaztena**  
 Euskararen Transmisioaren  
 X. Mintegia.  
 09:00-14:30.  
 Portaleko areto nagusian.



**Martxoak 12, eguena**  
 "Emakumeen aztarnak Eibarko  
 industrializazio-prozesuan" liburuaren  
 aurkezpena Portalean.

**Martxoak 11, 12 eta 13**  
 VI. Gilda Lehiaketa Euskeraz Primeran!  
 kanpainaren barruan.



### Martxoak 24, martitzena

Munduko  
 Janarien  
 Tailerra.  
 19:00etan  
 Portaleko  
 sukaldean.



**Martxoak 26, eguena**  
 ...eta kitto! Euskaraz Elkarrearen  
 Urteko Batzar Nagusia.  
 19:00etan 1. deialdia, 19:30ean 2na.

**Martxoak 29, doneka**  
 Igaralde baserrira irteera (Legazpi),  
 Ogiaren Txokoa bertatik bertara  
 ezagutzera. Gurasoak Berbetan eta  
 Ongietorri programako kideentzat.



## SD Eibar Fundazioak ixsa 7.000 euro bildu ditu Arraguetako kaltetueri laguntzeko

Arragueta kaleko kaltetueri laguntzeko asmuarekin SD Eibar Fundazioak bildutako 6.893,98 euroak Udalari emon zetsazen martitzen goizian. Miguel de los Toyos alkatiarekin batera, ekitaldixan Mikel Larrañaga Eibar Fundazioako presidenteordiak eta eta Jon Ander Ulazia Klubeko kontseillari ordezkariak hartu dabe parte eta, azaldutakuaren arabera, kopuru horretatik 6.315 euro iazko azaruan Eibar-Alaves partidua jokatu zanian bildu zittuen (euro bat ikustera juandako lagun bakotzeko) eta gaiñerako 578,98 euroak, barritz, "0 Fila" dalakuari zein jen-

diak egindako donaziñueri esker jaso zittuen. Alkatiak esker-erak emon zetsazen Eibarko ordezkariexeri, "kaltetueri laguntzeko emondako diruarengaittik eta, batez be, ezbeharragertatu eta segiduan laguntza emoteko prest agertziagaittik". Eibarko ordezkariak, bestalde, horrelako ekimenak klubaren izaeraren parte dirala ekarri eben gogora: "Beste batzuetan be kanpuan gertatu diran hondamendixetan kaltetu diraneri lagundu badetsagu, herrixan bertan laguntza bihar zala ikusitta, derrigorrez zeezer egin bihar genduala pentsatzen dogu".



Azaruaren 13an Arragueta kaleko 15. zenbakiko eraikiña erori baiño egun bat lehenago bertako bizilagunak etxetik etara bihar izan zittuen eta, ondoren, gauza bera egin bihar izan eben aldameneko eraikiñeko bizilagunekin be. Kalte-

tutako etxebizitzaren eraispenak 39 bizilaguneri eragin detse guztira eta, esan dabenez, bildutako dirua bizilagun horrerila detsazen etxietarako altxariak eta premiñazko beste gauza batzuk erosteko erabiliko dabe.

## Hitzarmena siñatu dabe Udalak eta Espaiñiako Astronomia Elkarteak

Udalak eta Espaiñiako Astronomia Elkarteak lankidetzahitzarmena siñatu eben atzo goizian, Javier Gorosabel Sariñen deialdixa egitteko eta Eibarren Astronomia Jardunaldixak antolatzeko. Miguel de los Toyos alkatiak eta Espaiñiako Astronomia Elkarteko ProAm Batzordiareri ordezkari modura Iñaki Ordoñezek siñatutako lankidetzahitzarmenak jasotzen dabeneri jarraituta, Udalak antolatuko dituan jardunaldixak urte birik behin egingo dira eta maiztasun bera eukiko dabe Javier Gorosabel astrofisikuaren izena eukiko dabeneri sarixak.

## Martin Egiguren eibartarra "El Conquistador" saioko parte-hartzaillien artian

Astelehen gabian estrenau eben 'El Conquistador' saiuañen hamaseigarren ediziñua ETB2k eta eitb.eus-ek. Julian lantzik gidatzen dabeneri realitya barritasun askorekin abiatu da eta, azken unera arte, isilpian gorde dittue aurtengo parte-hartzaillien eta kapitaiñen izenak, estreno egunian ezagutzera emoteko: euretako bat Martin Egiguren 19 urteko eibartarra da. IVEF ikaslia Guaragua (belatza) taldiarekin batera lehiatuko da.



Aste honetako estrenua eta gero, astelehenian ikusi ahal izango da lehiaketaren lehen atal osua, ETB2xan 22:30-xetatik aurrera.



## Petra Agirregomezkorta Txurruka

(2020ko urtarrilaren 1ean hil zen, 93 urterekin)

**URAK DAKARRENA URAK DAROA  
ZUK EMANDAKOIA GUREKIN GERATZEN DA**

- EGUIGUREN OSA FAMILIA -






ARGAZKIAK:

Malen Illarramendi

# Lau hamarkada GUREAK lantegikoentzat bazkaria antolatzen



URKIZU ETA INGURUKO ELKARTE GASTRONOMIKOEN (URKIZU KALEKO URKUSU-GAIN, ERDI BANA, JAIKI, DORREPE ETA EDOZER, KARMEN KALEKO DENON SAHATSA ETA BARRENA KALEKO BEKUAK) osatzen duten Auzokoak elkarteak, urteroko martxan, Gureak lantegi babestuetako beharginentzat bazkaria antolatu dute aurten ere. Zapatuan egin zuten ehundik gora lagun baten dituen bazkaria, Urkusu Gain eta Erdi Bana elkarteetan. 1981. urteaz geroztik urtero, Errege eguna pasatu eta hurrengo zapatuan prestatzen duten jai eguna biribiltzeko, gainera, parte-hartzaileen artean opariak banatu zituzten, herriko enpresa eta talde askoren laguntzari esker eta, jakina, animatu ziren guztiak Juan Luis Agirrek ipinitako musikaren erritmora aritu ziren dantzan. **ARGAZKI GEHIAGO IKUSTEKO:** [etakitto.eu/mediateka](http://etakitto.eu/mediateka).



2019 urtea amaituta, gure herriak urtebete lehenago baino 116 bizilagun gehiago zituen. Bada hamarkada bat, gutxinaka bada ere, biztanlegoaren kopuruak goraka diharduela egiten gurean, 80. hamarkadatik honako kontrako joera baztertuta. Aipatutako kopuru horretan emakumezkoak dira nagusi, 14.131 bizilagunekin (%51,34), gizezkoak 13.391 diren bitartean (%48,66); gizezkoak baino 740 emakume gehiago dago Eibarren, beraz.



## Eibarrek 27.522 biztanle ditu

**B**adira ia hamar urte Eibarko populazio kopuruak hondoa jo zuela, 27.378 biztanlerekin. Ikusten denez, azken urteotan ez da jauzi handirik egon kopuru horretan, ez gorantz ez beharantz; baina hogei urteetako beheranzkoak goranzko bidea hartu du azken hamarkadan. Eta gaur egun 2006ko mailan gaude, krisi ekonomikoa gertatu aurretikoan beraz: orduan 27.530 bizilagun zituen Eibarrek.

Izan ziren beste sasoi batzuk, gure herriaren biztanlegoak fluktuazio handiagoak ezagutu zituenekoak. Horrela, 1850ean Eibarrek 3.500 biztanle zituen; 1900ean, 6.500; 1940an, 11.800. Hortik aurrerakoak bai hartu zuela boom itxura, garapen industrialak bultzatuta: 20 urtetan, 1960an esaterako, herriak 31.700 biztanle zituen, hau da, 20.000 gehiago; eta 1965ean 35.617ra iritsi zen. Bide horretatik jarraitu

zuen Eibarrek hazten, harik eta 1978an goia jo arte, ia 40.000 biztanlerekin: 39.561. Hortik aurrerakoak jaitsieraren bidetik jo zuen. 1980tik 1986ra arte, adibidez, populazioa mila biztanletan jaitsi zen urtero. Eta azken urteotan 27.500en bueltan egon da.

### Joera ezberdina azken hamarkadan

Arazoak sor ditzazkeen prozesu horretan pisu handia du jaiotako kopuruaren jaitsierak, horrek gure gizartea gero eta nagusiagoa izatea dakarrelako. Jakina, hazkunde begetatiboak negatiboa izaten jarraitzen du, urtero-urtero hildako gehiago ditugulako jaiotakoak baino. 1960an 803 jaiotako izan baziren, eta 1965ean 913, 2016an 235ean geratu zen urte horretan jaiotako kopurua. Hau da, 60. hamarkadan jaiotako ia laurdenera muga-tuta. Kopuru horiek, jakina, mailaka joan dira jaisten: 1975ean 658 jaiotako izan zi-

ren, baby boom fenomenoaren urteak pasatuta. Ondorengo krisi-sasoiak eta herriko lantegi batzuen exodoak 1981ean bakarrik 375 jaiotako izatea ekarriko zuen, edo 323 1983an. Geroago, 1998tik 2007ra arteko epean, populazioa %7,8 jaisten joango zen, hamarkada horretan guztira 2.308 bizilagun galtzeraino. Prozesu guzti horretan eragina izan zuen kanpotik hona etorritako asko, behin erretiroa hartuta, euren jaioterrietara bueltatu zela. Eta, gazteen aldetik, eibartar askok kostaldera jo zuen (Donostiara, Zarautzera edo Debara) bizi-kalitate hobearen bila.

2000tik aurrera jaiotzak urtero 220/240 tartean egonkortu ziren, horren aurreko hamarkadan kopuru txikiagoak ezagutu bagenituen ere. Kopuru txikiak 1991n (183 jaiotze) eta 1992an (175) eman ziren. 1998an, bestalde, Eibarko Udala dominak banatzen hasi zen jaiotako guztien artean, eta 3.000tik gora izan ziren "sari" hori jasozutenak. Hildakoen kopuruari dagokionez, 2014an 331 izan ziren eta hurrengo bi urteetan 310 bueltan.

Biztanlegoak gora egitearen arrazoi nagusia etorkinen kopuruan ikusi behar dugu. Gaur egun Eibarren 2.471 etorkin daude, gurean erroldatutako %8,9, eta gero eta goranzko joera handiagoarekin. Munduko izkina guztietatik etorritakoak ditugu hor, guztira 74 herrialdeetatik. Horiez gain, badira sorterririk gabeko 27 lagun eta beste hiru harreman diplomatikorik gabeko herrialdeetatik etorritakoak.

### Etorkinak Eibarren.-

Marokko (893), Nikaragua (155), Dominikar Errepublika (127), Senegal (118), Kolonbia (116), Pakistan (113), Venezuela (95), Brasil (84), Portugal (81), Bolivia (58), Argelia (53), Errumania (47), Txina eta Nigeria (41), Kuba (38), Honduras (31), Ekuador (28), Peru (24), Argentina (20), Britainia Handia eta Nepal (18), Italia (17), Albania (15), Bangladesh (14), Mali eta Kongo Errepublika (13), Kongo (11), El Salvador eta Ukraina (10), Frantzia eta Paraguay (9), Angola, Bulgaria, Boli Kosta, Mauritania eta Mexiko (7), Irlanda eta Errusia (6), Kamerun, Ghana eta Ekuatoriar Ginea (5), Alemania, Bosnia-Herzegovina, Estatu Batuak eta Japonia (4), Txile, Egipto, Palestina, Serbia, Suedia eta Thailandia (3), Gambia, Ginea, Polonia eta Uruguay (2) eta Afganistan, Australia, Belgika, Bielorrusia, Cabo Verde, Costa Rica, Kroazia, Finlandia, Guatemala, Hungaria, India, Iran, Montenegro, Herbehereak, Afrika Erdiko Errepublika, Somalia eta Togo, guztiak batekin.

# Kuba eta Eibar bihotzean

**M**arilian Batista Las Tunasen jaio zen, Kuba ekialdean. *“Hiri ederra da eta jendea oso sana, Eibarren bezala”*. Hiri koloniala izanik, espainiarrek sortutako eraikuntza ugari daude eta ‘Eskulturaren hiriburua’ deitzen diote. 160.000 biztanle inguru ditu eta azukre-industria da nagusi. Klima tropikala izanik, urteko batezbesteko tenperatura 25 gradukoa da, eta hor bai igarri du aldea Eibarrekin alderatuz. *“Baina bestela, ez dut Eibar utzi eta Kubara itzultzeko asmorik”*.

## Ortozik, horrela nahi zutelako

Las Tunasen haztea gauza zoragarria izan zen dela dio Marilianek. *“Kalean orduak eta orduak pasatzen genituen jolasten. Ortozik ibiltzen ginen, horrela nahi genuelako”*. Inguruan bizi ziren umeekin eta eskolako lagunekin jolasten zuen ezkutaketan, beisbolean edo tortolosekin. *“Guk yakia deitzen diogu tortolosen jolasari”*. Baina dena ez zen jolasa, eskolara ere joan behar zirelako. *“Kuban hezkuntza zoragarria da eta ume guztiak eskolara joatera behartuta daude. Gizarte-langileak etxerik etxe ibiltzen dira baikoitzaren beharrianak aztertzen, ume guztiak eskolara joan daitezzen. Gainera, hezkuntza doakoa da”*.

## Gastronomia gustoko

Eskola utzi zuenean, gizon bat ezagutu eta seme-alabak izan zituen. *“Hortik aurrera eurak izan ziren nire lehentasuna, baina ikasketekin jarraitu nuen gauean ematen ziren klaseetan”*. Ostalaritza ikasketak egin zituen, *“han gastronomia deitzen dioguna”*. Egunkariak eta liburuak saltzen zituen toki batean egin zuen lan lehenik, eta jatetxeetan ondoren. Ostalaritzan egin zuen lan hona etorri arte eta taberna batean egiten du lan hemen baita ere. *“Jendearekin elkar eragiteko aukera ematen dit eta asko gustatzen zait. Gainera, euskerazko berba batzuk ikasteko balio izan dit”*. Bestetik, sukaldaritza gustoko izanik, hemengo jakiak prestatzen ikasi du eta ez du faltan botatzen Kubako janaria. *“Hemengo gauza batzuk ez ditut jaten, baina orokorrean asko gustatzen zait hemengo gastronomia. Barazkiak jatea gustatzen zait batez ere”*.

## Seme-alabak Kuban

Seme-alabak eta zazpi urteko iloba Kuban utzi eta abentura berria hasi zuen European orain dela urte bi inguru. *“Beti eduki dut beste toki batzuk eza-gutzeko gogoia eta European inguruan kontatzen zutena benetakoa zen baieztatu nahi nuen”*. Gogoia handia zen,



Bi urtetan ederki moldatau da Eibarko bizitzara. **Ekhi Belar**


baina baita beldurra ere. *“Aurretik inoiz ez nintzen Kubatik irten eta oso gogorra zen nire seme-alabengandik banatzea, baina euren animatu ninduten gehien”*. Eibarren hainbat familiar zituen zain eta horrek bidea erraztu zion. *“Ez balira hemen egongo, ez nintzateke etorriko”*. Hasiera oso gogorra izan zela aitortzen du, *“Kubarekin alderatuz Euskal Herria guztiz ezberdina delako”*, baina hasierako beldurra uxatu eta bere benetako izaerarekin aurrera egin ahal zuela pentsatu zuen. *“Hemengo jendea ni bezalakoa delako, ez gehiago ez gutxiago”*. Esan eta egin, gaur egun ezin pozago bizi da Eibarren.

## Adiskidetasuna guztiaren gainera

*“Kubatarrek oso lagunkoiak eta oso maitekorak gara”*, dio Marilianek, *“ez da itxurazko ezer, benetan gara horrelakoak”*. Kubatarrek lagun artean denbora ugari pasatzen dute, baita Gabonetako ospakizunetan ere. *“Gabonetan txerri bat erretzen dugu eta bizilagunak etxera etortzen dira. Era berean, zu euren etxera joaten zara”*. Gainera, kubatarren solidaritatearen erakusgarri, txerri bat erretzeko aukera ez duenak besteek baino gehiago jaten du, *“bizilagun guztion gonbidapena jasotzen dutelako”*. Marilianek ez zuen pentsatzen Eibarren antzeko adiskidetasunik aurkituko zuenik, baina oker zegoen. *“Euskaldunak pixka bat itxiak dira hasieran, baina gero bihotza irekitzen dizute”*.

**“El que tiene amigos tiene un central”**

**“Lagunak dituenak altxorra du”**



# U30eko grebarako bihar egingo den argazkirako gonbidapen zabala egin dute

LAN, pentsio eta bizitza duinak eskatzeko greba orokorra deitu dute Euskal Herrian hilaren 30erako. Maila orokorrean aspaldi ekin zioten greba eguna prestatzeko lanari eta Eibarren ere hainbat bilera egin dituzte Greba Batzordea osatzen dutenek. Greba eguna geroz eta gertuago dagoela ikusita, herritarrak mobilizatzeko asmoz deialdia egin dute asteburu honetarako: bihar arratsaldean, 19:00etan, U30 grebarako argazkia egingo dute Untzagan, harmailetan, eta jende guztia bertara joatera animatu nahi dute, talde argazkia ahalik eta jendetsuena izateko. Argazkia egin eta, jarraian, kalejira egingo dute.

Bizi baldintza duinak bermatzea helburu duen hilaren 30eko greba orokorra erregistratu zuten aurreko astean Bilbon eta Iruñean Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren kide diren sindikatuek. Greba erregistratzeko ekitaldietan ELA, LAB, ESK, Steilas, EHNE, Etxalde eta Hiru sindikatuetako ordezkariak egon ziren eta, ja-

rraian egindako adierazpenetan esanda-koaren arabera, "hilaren 30erako deitu den greba orokorrek hiritar askoren lan eta bizi baldintzak hobetzeko borrokan jauzi bat eman nahi dugu. Pentsio sistema publikoa bermatu nahi dugu, lan baldintzak hobetu, eskubide sozialak garatu, eta sinetsita gaude greba orokorra helburu guzti hauek lortzeko tresna eraginkorra izango dela". U30ko grebaren harira, besteak beste, eskaera zehatzak jasotzen dituen aldarrikapen taula bat garatu dute, "hiritarren beharrei zuzenean erantzuten dieten proposamenak" bertan bilduta.

Urtarrilaren 30erako greba deitzea gizarte mugimendu biren arteko konfluentziari zor zaio: "Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde astero mobilizatzen. Bide horretan, pentsioen eremuaz gain, modu zabalagoan 'planto' egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz. Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari hiritarren

eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu genuen, prozesu parte-hartzaile baten bidez. Orduz geroztik eskubide horien aldeko ekimenak antolatu ditugu. Orain, aipatu planteamenduen haritik, mugimendu bien arteko konfluentzia eman da, pentsiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia. Egoera ikusita, beharrezkoa iruditzen zaigu jauzi bat ematea lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokan. Konbentzimendu hirukoitz batek batu gaitu: bate-tik, pentsioena denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; eta, azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira". Deialdia egin dutenek oso argi daukate grebarako hamaika arrazoi dagoela eta, gainera, grebak azken urteotan lanean zein bestelako esparruetan galtzen joan diren eskubideak eta gutxieneko baldintzak berreskuratzeko aukera paregabea emango duela uste dute.

## BELEN ECENARRO AZCARATE

(2020-I-10)

**Liburuak maite genituen zuk eta guk, eta literaturaren inguruan lagunak egin ginen.**

**Laztan haundi bat, Belen maitea. Oroimen ederra utzi diguzu.**

LITERTXOKO-KO LAGUNAK





Uxue Barkos politikari nafarrak 'Ondo egindako lana' saria jasoko du Armeria Eskolaren eskutik. "Iruñeko zinegotzi, Gorteetako diputatu eta Nafarroako lehendakari ohiaren politika egiteko beste modu bat azpimarratu nahi dugu", Armeriakoen berbetan. Astelehenean, hilaren 20an, 18:30ean, Barkos omenduko dute Armeria Eskolan eta, gainera, politikariak Xabier Lapitz kazetariarekin solasaldia edukiko du.

**UXUE BARKOS**  
 (politikaria):

**“Elkarbizitza da gizarte bat aurrera eramateko tresnarik ederrena”**

**- Nola jasotzen duzu 'Ondo egindako lana' saria?**

Emozio handiz jasoko du saria datorren astelehenean, proposamena emozio handiz jaso nuen bezala. Zein sari ederra den azpimarratu nahi dut. Ondo egindako lanari emandako sari batek proposatzen duen filosofia oso baikorra da eta, are gehiago, politikaren inguruan horrelako onespren bat egiteak balio handia du.

**- Nola egiten duzu lan edo, behintzat, nola saiatzen zara lana egiten?**

Nahiz eta politikara begira egin, oso esparru ezberdinetan egin izan dut lan nire bizitza profesionalean. Lehenik, eta urte askotan zehar gainera, kazetaritzan egin nuen lan. Eta egun, eta urte askoz baita ere, politikari moduan. Politikagintzan bide askoz laburragoa egingo nuela pentsatzen nuen, baina azkenean luzatu egin da eta positiboki gainera. Momentu ederrak

bizi izan ditut, eta gaitzak baita ere, nola ez. Lana anbizioz egiten saiatzen naiz, anbizio positiboarekin, eta gehien bat gizarteari begira. Zentzu horretan kazetaritzak eta politikagintzak zerikusia handia dute.

**- Nafarroako Gobernuaren presidentzian une historikoa bizi izan zenuen, urte askoren ondoren UPN boteretik kanpo geratu zelako. Nola bizi izan zenituen laur urte horiek?**

Urte ederrak izan ziren. Ez bakarrik niretzat Nafarroako Gobernuko presidente gisa, baizik eta laukotea osatzen genuen alderdiontzat. Argi geneukan momentu historikoa zela, erantzukizunez josita, eta ez zen momentu erraza izan. Ekonomikoki

**“Lana anbizio positiboarekin egiten saiatzen naiz eta, gehien bat, gizarteari begira”**

oso momentu latza izan zen, orduan aurkitu genuen egoera ez zelako batere erraza. Nafarroako kontuak haustuta zeuden. Politikoki ere ez zen erraza izan. Inbestidura saioko hitzaldian esan nuen bezala: *“presidente abertzalea naiz, abertzaleok gehiengo ez garen herrialde batean”*. Zer esan nahi nuen horrekin? Presidente gisa oso argi neukala non izan behar zuen nire errepresentazioak, baina baita ere politikoki harrotasunez mantentzen nuela nire posizioa. Nahiz eta gehiengo ez osatu, posizio erreala da hori Nafarroan. Beraz, urte ederrak izan ziren, baina zailak baita ere. Bagenekien ez zela erraza izango momentu hura berriz errepikatzea eta, egia esan, ez genuen pentsatzen gero bueltan etorriko zena hain handia izango zenik, nahiz eta Geroa Bairen eta EH Bilduren kasuan oso emaitza onak lortu genituen 2019ko Nafarroako Foru Hauteskundeetan.

**“Politikagintzan ari garenon erantzukizun sakonena elkarbizitzarako esparruak eta baldintzak lortzea da”**

**- Kazetari moduan ezagutu zintugun. Nola egin zenuen jauzi politikagintzara?**

Oso momentu berezia izan zen. Sasoi hartan Madrilen egiten nuen lan ETBko berriemaile moduan eta gogoratzen dut 2003ko abenduan Nafarroari buruzko oso albiste garrantzitsu bat agertu zela. 2004ko Hauteskunde Orokorretara begira Nafarroako alderdi batzuen koalizio eraketaren inguruan egiten zuen berba albisteak. Aralar (Herri Batasunatik ateratako alderdi bat, Patxi Zabaletak zuzenduta eta biolentziaren aurrean beste jarrera bat zuena), Eusko Alkartasuna, Eusko Alderdi Jeltzalea eta beste hainbat alderdi zeuden koalizio horretan. Koalizioa aurkeztu eta hautagai baten bila jarri ziren, eta niri proposatu zidaten. Momentu hartan pentsatu nuen ederra dela politika aktibotik kanpo gauden herritarrok gure bizitzaren momentu batean apostua egin eta gizarteari begira gure lana eta denbora eskaintzea. Horrek animatu ninduen eta, familiarekin kontsultatu ondoren, baiezkoa eman nuen.

**- Kazetari moduan politikaren mundua gertutik ezagutzeko aukera izan zenuen. Baliagarria izan zitzaizun politikagintzara jauzi egiteko?**

Erabat. Urtez izan nintzen berriemailea



Madrilgo Kongresuan, eta esparru politikoa eta eszenatokia ezagutzen nituen.

**- Lehenik, zinegotzia izan zinen Iruñeko Udalean eta, orain, Parlamentuan zaudete. Alde handia dago?**

Udal politika eta politika orokorra edo legislatiboa oso ezberdinak dira. Udal politika gertukoa da, egunerokoa, herritarren arazoak bertan jorratzen dituen. Parlamentukoa, bestetik, orokorragoa da. Zein gustatzen zaidan gehien? Ez naiz ausartzen bat aukeratzeko. Agian, eztabaida parlamentarioan erosoago sentitzen naiz.

**- Nolako plaza da Nafarroa politika egiteko?**

Ez da plaza erraza. Nafarroako gizartea oso anitza da, baina askok ez dute onartu

nahi. Aniztasun horiek bideratu egin behar dira eta politikak erantzukizun handia du zentzu horretan. Ziur naiz guztiok helburu berberak ditugula edo, gutxienez, puntu berera iritsi nahi dugula. Hori bai, bideak guztiz ezberdinak dira. Horretarako erabat beharrezkoa den tresna bat dugu: elkarbizitza. Gure herrian, ez bakarrik Nafarroan, baizik eta Euskal Herri osoan, urte oso latzak bizi izan ditugu hainbat gaien inguruan, baina horrek erakutsi digu elkarbizitza dela tresnarik ederrena gizarte bat bere erronka sozial, kultural eta politikoetan aurrera eramateko. Zentzu horretan oso kementsua naiz. Politikagintzan ari garenon erantzukizun sakonena elkarbizitzarako moldeak, esparruak eta baldintzak lortzea da.

**OHARRA**  
Banaketa-zerrenda berrizten ari gara. Aldizkaria **jasotzeko** edo **jasotzen jarraitzeko** eman izena beheko zerrendan

**eta kitto!**  
Astekaria

Izen-abizenak

**...eta kitto! astekariko  
ETXEZ ETXEKO BANAKETA-ZERRENDA  
BERRIZTEN ARI GARA**

**Eibarko etxeetan aldizkaria JASOTZEKO edo  
JASOTZEN JARRAITZEKO  
zerrendak bete behar dituzue.**

**Hurrengo asteetan kale hauetako pegoretan  
jarriko dira orriak:  
San Andres - Ego Gain - Isasi - Abontza- Zezen Bide**

**banaketa.etakitto@gmail.com**

*leire narbaiza*

Eibarrerri Bilbotxiki esan detse, eta gu harro. Ez dakit, ba. Gero eta premiña gehixago eibartarrok, gero eta eskastuago herrixa. Zelan amaittuko?

## Eibar gainbehera doia

**Errebal kalian noia etxerako bidian. Illunabarra da, eta gaba ez izan arren, ez da ixa ezer ikusten.** Ze illun dagan dana pensau dot neure kautan farolak aldatu ete dittue?. Ez, ez dittue kanbixau, Errebal kalian dendak itxi dittue, eta ez dabe eskapariak argirik emoten. Bidebarrixetan be kontu bera: ze illun dagan! Jakina, kale horretan, San Agustiñetik behera, numero bakoitxetan ez dago farolarik eta! Blokietako jardinetan bai, baiña espaloian ez. Zelan ikusiko dogu ezer, kale erdixak baiño ez badaka farolarik? Ez ete dogu inpuistorik pagatzen? Ez ete dogu merezi?

Argixa ez da arazo bakarra. Problema da Eibar total bajauta dugu, Errebal-Musategi zebra-bide horretatik behera bai, behintzat. Gainbehera datorrela herrixa, lagunok! Sentido figurau ba-

ten, eta sentido literalian. Izan be, Arragueta kalian jausi egin dira etxe batzuk, 51 urtian ordenaziñotik kanpora egon ostian, obrarik egin ezinda. Grabadoresen, juzgau zaharrak –hainbeste urte ez badakaz be– hiru zulo dittu teiltuan, bertan behera lagata egon dalako herrixan lokal ganorazkuak sobre balegoz letxe. Kale horretan bertan, gaiñera, Sarasketaneko taillarra botatzen dabiz etxiak egitteko. Eraikin edarra zan, Nueva Yorken estima haunditan eukiko leukiena, guk hamen bota eta barrixa egin. Eta Urkutsutik behera abandono osua. Halakorik!

Eibarrerri Bilbotxiki esan izan detse, eta guk harro bota bilbotarren modukuak garala, baiña diruakin. Ez dakit, ba. Gero eta premiña gehixago eibartarrok, gero eta eskastuago herrixa. Ez dakit zelan amaittuko dugun, ez dakit.

*iñaki ugarteburu*

Gaur egun utopia dena egia bihurtzeko borondatea eta dirua behar da. Erkidegorako garraio txartela hain gertu egonda, zergatik ez kirol txartela?

## Euskadiko kirol txartela

**Argi eta garbi dago jarduera fisikoa praktikatzea onuragarria dela pertsonentzako; arlo fisikoan, psikikoan, emozionalean...**, praktika egokia aukeratzen eta neurrian praktikatzeak onura asko ditu.

Erkidegoan kirol elkarte, udalak, eskolak eta beste eragile baztuen bidez lortzen ari gara praktikatzaile kopurua handitzea, eta oraindik ere hobetzeko aukera dugu. Gurean, praktika antolatuta ugariena kiroldegia publikoetan egiten da, eta onartu behar dugu Udalen partetik sekulako esfortzua egiten dela kirol instalazioak eraiki, sustatu eta mantentzeko.



Hau horrela izanda eta kontuan hartuz hobetzeko tarte dugu, erraztasunak ematea planteatzen dut, jarduera gehiago praktikatzeko eta praktikatzaile gehiago izateko. Erraztasunak eskaini arrazoi ezberdinengatik kiroldegietara joaten ez direnentzat; ba-

liabide falta, ezagutza edo motibazio falta, oztopo arkitektonikoak... Eta baita erraztasunak dagoeneko joaten direnei, beste herrietako kirol instalazioetara joan ahal izateko; bertan lanean edo ikasten daudelako, nahi duten ekipamendua bere herrian ez dagoelako...

Gero eta gertuago dago Erkidegorako garraio txartela, zergatik ez Euskadiko kirol txartela?.

E.J.tik egitasmo duin bat jartzen ari da martxan, Mugiment kirol txartela, eta poliki poliki zabaltzen ari da, baina ez da nahikoa, erakundeen partetik apustu garbia eta ausarta behar da. Gaur egun utopia dena egia bihurtzeko; borondatea eta dirua behar da. Gure herriko kiroldegiko abonatuak izanda, beste edozein herriko instalazio publikoa erabili ahal izateko.

Eskatzera animatuko gara?



# Arrate Ibargutxiri, Arrate Ibargutxirena

Badira norberaren barrenean betirako gordeta geratzen diren abestiak. Urte askoan entzun gabe egon arren, lehen doinuak edo berbak aditu eta berehala burura etortzen direnak. Ez dira gustokoak edo bereziki ederrak izan behar. Zureak dira, beste barik. Herriarenak dira. Herriarenak dira, baina norbaitek sortu ditu eta, egiletza ezaguna bada, bidezkoa da sortzaileari aitortza egitea. Zentzu horretan, Eibarrek aitortza zor zion Arrate Ibargutxiri eta heldu da herriko memoria kolektiboan iltzatuta dauden abesti biri bere sinadura jartzeko sasoi.

**S**an Andres eta San Blas egunak bereziak dira Eibarren, eibartar orok daki hori, eta bereziak izanik, jai giroan ospatzen dira. Jai batean, noski, ezin da musika falta, eta egun berezi bakoitzak bere abestia izan ohi du (bat baino gehiago hainbat kasutan). Jaietako abestiak txikitatik ikasi ohi ditugu, doinu eta letrak gure buruan betirako grabatzeko sasoirik onenean. Gure kasuan, Eibarren, etxean ez bada eskolan ikasten ditugu herriko abesti tradizionalak. Kantu batzuk ehun urte baino gehiago izango dituzte ('Arragueta kalian', 'Hiru gizon ilustré...') eta beste batzuk berriagoak dira, baina guztiek jarraituko dute gure ahotan belaunaldiz belaunaldi.

Belaunaldi berriekin, berrogei urte baino gutxiago duten eibartarrek, San Andres eta San Blas jaietarako Arrate Ibar-

gutxik sortutako abesti bi ikasi zituzten eskolan ("*San Juan jaietako abestia egitea falta izan zait!*"), esan digu Ibargutxik umoretsu). Herriko milaka ume hazi dira abesti hauek abesten, kantu herrikoiak dira, relata pentsatuz, Arrate Ibargutxiren izena inoiz ez delako agertu abestien alboan. "*Sasoi hartan eskolako zuzendaria zenak pentsatu zuen ez zegoela abestien sortzailearen izena jarri beharrik eta horrela geratu da gauza orain arte, kantuak sinatu barik*", esan digu Ibargutxik, abestien letrak jasotzen dituzten paperak eskuan dituela. "*Zuzendariak abestia ikastolarena zela esan eta, beste barik, nire izena kendu zion*". Berak zuzendariaren erabakia onartu zuen, asko pentsatu gabe, inoiz ez zuelako paparrean dominarik jarri izan nahi. Orain, ordea, herriari dagozko justizia egitea.

## Sanblasetako abestia

Abesti bakoitzaren sorkuntzak istorio bat du atzean. Irakaslea ofizios eta bokazioz, irakaskuntza lana baino zerbait gehiago izan zen Ibargutxirentzat. Ikastolak martxan jarri ziren sasoiari hasi zen irakasle, titulaziorik gabe, eta lan egiten zuen bitartean egin zituen irakasle ikasketak. Beste denbora batzuk ziren, militantzia sasoiak.

Ibargutxik txikiarekin egin du beharra urte askotan, Haur Hezkuntzan, eta gattetxoek behar zuten maitasuna eta beroa eskaintzen saiatu da beti. San Blasaren abestia, adibidez, umeei San Blas opilak plastilinarekin egiten zuten momentuan asmatu zuen. "*Plastilinarekin San Blasak egiten ari ziren, beste graziaz gabe, baina gustora. Orduan, umeei zerbait gehiago eskaini asmoz, egiten ari zirenenari balio erantsia edo esanahi bat emateko, kantu bat sortzeko aukera azaldu nion beste andereño bati. Berari ideia ona iruditu zitzaion eta gela baten sartu nintzen abes-*

tiaren letra egiteko". Minutu batzuetako kontua izan zen. "Umeak jolastordutik etorri zirenerako abestia amaituta nuen". Orain ahotsa pixka bat kaskartuta duela esan digun arren, berak sortutako abestia abestu digu:

EIBARREN OSPATZEN DA  
 SAN BLASAN EGUNA  
 GOXO-GOXOA DA TA  
 ON EGIN DAIGULA.

KANPOTIK ZURIXA DA  
 TA BARRUTIK HORIXA  
 SANBLAS OPILAK DAUKA  
 BARRUAN ANISA.

EIBARTARREN OHITURA  
 EZ DAKIT NOIZKUA  
 UME, ZAHAR ETA GAZTEK  
 OSPATU DAIGULA.

San Blasaren abestiarekin opilen inguruko informazio gehiago eman zien Ibar gutxiak umeei. "Kanpotik horia eta barrutik zuria dela azaltzen da, eta barruan anisa duela. Opilak plastilinarekin egiten ari zirenez, benetako opilak nolakoak diren azaltzen du abestiak", argitzen digu Ibar gutxiak. Umeek etxera eraman zituzten plastilinazko San Blasak, baina baita eskolan ikasitako abesti berria ere.

Ibar gutxiak ez du ondo gogoratzen noiz izan zen hori, "orain dela hogeitau urte baino gehiago bai, ziur". Bera Jazinto Olaben zegoen irakasle eta han sortutako abestia herriko eskola guztietara zabaldu da ordu tik, belaunaldiz belaunaldi.

### Sanandresetako abestia

San Andres Egunean herrian egiten den azokaren antzera, eskoletan Sanandresetako azoka txikiak antolatu izan dituzte aspalditik. "Batek aza eramaten zuen, beste batek mispilak... ume bakoitzak azokarako produktu bat eraman ohi zuen", gogoratzen du Ibar gutxiak.

San Blasaren abestiarekin egin bezala, umeei Sanandresak gehiago ezagutzeko sortu zuen abestia, baina ez hori bakarrik. "Eskolan egiten genuen azoka girotzeko sortu nuen, abestu eta dantza egiteko". Eta berriz ere, ahotsa garbitu eta kantua abesten digu:

SAN ANDRES EGUNA DA  
 EIBARKO PATROIA  
 DANOK IGARO DAIGUN  
 EGUN OSO ALAIA.  
 BIZPERATIK HASITA  
 JAN ETA EDANIAN  
 UMORE ONA IZAN  
 HURRENGO EGUNIAN


AZOKA ANTOLATZEN DA  
 UNTZAGAKO PLAZAN  
 PIPAR TXORIZERUAK  
 EZ DA EZER FALTA  
 EZTIA TA GAZTAIA  
 BABA TA SAGARRAK  
 GERO IZANGO DEGU  
 KAFE ETA PATTARRA.

Abesti hau sortu zenetik bete egin da Ibar gutxiaren asmoa, eta milaka dira doinu eta letra hauen inguruan kantatu eta dantzatu duten eibartarrak.

### SAN BLAS

Musika : Herrikoia  
 Hitzak : Arrate Ibar gutxi

Maite Arroitauregik prestatutako partitura.




### Egiletza ezezaguna

Abesti hauen egiletzaren aitortzak ez dio loa kendu Ibar gutxiari, baina hainbat istorio bitxi gertatu zaizkio horren inguruan. "Andra batek esan zidan bera eibartarra zela eta sekula ez zuela nik sortutako Sanandresetako abestia entzun, eta ni isilik geratu nintzen, nik sortu nuela esan gabe", gogoratzen du Ibar gutxiak. Beste behin, ordea, ez zen isilik geratu. "Ilea-paindegian negoenean mutikotxo bat kantuan hasi zen eta nik: 'Ene, abesti hori nik sortu nuen', esan nion. Barrenetik atera zitzaidan. Mutikotxoaren amak esan zidan berak bazekiela abestia nik sortu nuela". Izan ere, abestiak eskolatik etxera heldu dira belaunaldiz belaunaldi. "Nik badakit umeei abestiak etxera eraman dituztela eta etxean gurasoekin dantza egiten dutela".

Beste adibide bat: "Behin anaia Josurekin etxerantz nindoan, gauerdian inguruan, eta gazte koadrila bat abesten entzun genuen. Nire abestia zen eta barruak buelta





eman zidan. Isil-isilik geratu nintzen, ezer esan gabe. Izugarria iruditu zitzaidan jendeak nik sortutako abestia ikasi izana. Emozioa eman zidan”.

### Literaturarekiko zaletasuna

Ibargutxiren sorkuntzarako joera, ordea, ez zen bat-batekoa izan. “Beti gustatu izan zait idaztea eta irakurtzea”. Gazteagoa zenean hainbat ipuin idatzi zituen eta maitasun handiz gordetzen ditu argitaratutakoak. ‘Sentipen urratsak’, ‘Kapela’ eta ‘Herri txikietakoz gauzak’ dira, besteak beste, Ibargutxik idatzi dituen ipuinen izenburu batzuk, eta beste autore handirekin batera publikatu zituen bere idatziak. “Luis Haranburu Altuna eta Josemari Velez de Mendizabalen idatziekin batera argitaratu zituzten nire sorkuntzak. Harrituta geratu nintzen nire izena hain maila handiko idazleekin batera ikustean”. Gainera, bere alboan agertzen diren izen gehienak gizonen izenak dira, beraz, Ibargutxi emakume aitzindaria izan zen.

### SAN ANDRES

Musika: Herrikoia  
Hitzak: Arrate Ibargutxi

Maite Arroitauregik prestatutako partitura.


Arrasate edo Iruneko lehiaketetan hartu zuen parte 70. eta 80. hamarkadetan, eta arrakasta handiarekin gainera. “Helduentzako ipuinak dira. Politak nire ustez. Gauza onak igorri nahi nituen testuetan, besteentzat lagungarriak izan zitezkeenak, mezu positiboekin”, Ibargutxik dioenez. Baina ez da bere testuak politak direla pentsatzen duen pertsona bakarra, inguruan zaleak dituelako. “Lagun batek errietan egiten dit, aspaldi idatzi ez dudalako”. Apaltasunez, Ibargutxik ez zuen lau haizetara zabaldu literaturarekiko zuen zaletasuna eta abilezia. “Donostiako lagun min ba-

ti bakarrik eman nion liburu bat, bestela ez nion inori gehiago esan. Amari bai, saritu nindutenean zoroaren pare joan nintzen berarengana eta poz-oz jarri zen”.

Ipuinak idatzi edo abestiak egin, imajinazioa lantzeko eta mundu berriak sortzeko gaitasuna izan du beti Ibargutxik. Lore eta Asier seme-alabak elkarrizketa honen lekuko izan ziren eta haurrak zirenean amak ipuinak asmatzeko ohitura zuela aitatu digute. Sorkuntza batzuek euren etxeko berotasunean aurkitu dute bizitokia, baina beste batzuk eibartar guztion etxeetara heldu dira. Eskerrak Arrateri.

## SAN ANDRES ESKOLA

Zatoz gu ezagutzera!



ATE IREKIAK



MATRIKULAZIOA 2020-21 IKASTURTEA

Urtarrilak 25, larunbata, 16:30/19:30

Iñoiz galdetu detsazue zeuen buruari zenbat kostatzen dabean guk sortutako zabor guztia bihar dan moduan tratatziak? Eta etxetik kanpora zikintzen doguna garbitziak? Galdera horrendako eta beste batzurendako erantzuna Debabarreneko Mankomunitadiak onartu barri dabean presupuestuan topatu geinke: 2020. urterako 14 millioi euro inguruko aurrekontua aho batez onartu eben urtarrillaren 7xan eta, horren baitan, gaikako bilketarako eta birziklatzerako partidak %10 igo dira. Partida horretan 5,8 millioi euro inbertiduko ditte guztira Mankomunitadiak edo, beste modu batera esateko, horretarako 80 euro erabilliko ditte herritar eta urte bakoetxeko.



## Ixa 14 millioi euroko aurrekontua onartu dabe Mankomunitatean

Urte osorako presupuestua onartze-ko saiuan batzordiak aho batez babestu zittuan kontuak eta, aittatutako kontu horrek 13.946.863 euroko aurrekontua aurreikusen dabe 2020. urterako. Ahalegin ekonomiko nagusiña hiri-hondakiñen gaikako bilketara eta kudeaketara bideratutako partidetan ikusten da: hórretxan zenbatekua 9.092.662 eurokua da, aurrekontuaren %65 baiño gehixago. Atal horretan, nabarmentzekua da hondakiñen altako kudeaketiarengaittik Mankomunitateak GHKri ordaindu biharreko 3.241.493 euroak. Horrekin batera, birziklatze-alorrari lotutako beste partida garrantzitsu batzuk dagoz: Mankomunitateak 1.200.000 euro inbertiduko ditte ibilgailu eta makinak barriztatzeko, 234.353 euro papel eta kartoiaren gaikako bilketarako eta beste 190.004 euro ontzixen bilketarako.

Bilketari lotutako gastuen atzetik, kopuruari begira kale-garbitzaren atala da bigarren garrantzitsuena: Mankomunitateak 4.4041.523 euro jarriko ditte atal horretarako. Bestalde, makiñetan sartutako hobekuntzeri eta kontenedorien aldamenian lagatako zabor-poltsak eta hondakiñak biltzeko zerbitzuari eutsiko detse ekitaldi honetan be.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateak presidente baxia daka aurreko uztailaz geroztik: losu Arraiz elgoibartar

jeltzaliak hartu eban Arcadio Benitezek lagatoko tokixa. Onartu barri dabean aurrekontuari buruz berbetan esan dabenez, "zerbitzua hobetzia, kopuruekin gardenak izatia eta birziklatziaren alorrian Europak ezarrirtako helburuak lortzeko bidian aurrera segitzia dira aurrekontuaren lehentasanak".

### %3ko igoeria tasetan

Mankomunitateak proposatuko tasen igoeraren batez besteko porzentajia %3,04kua da, baiña kontuan izan bihar da eskualdeko herri bakoetxak tasa desberdiñak dituala, zerbitzuaren arabera. 2020-xan tasetan pagau biharreko kopuruak gorra egitteko arrazoï nagusiñak jarraixan aittazen dittugunak dirala azaldu dabe: papalaren eta kartoiaren salmenta-preziuen murrizketa drastikuak eraginda diru-sarreak nabarmen egin dabela behera; horrekin batera, instalaziñuen eta ibilgailuen mantentze-kostuak eta Mankomunitateko pertsonalak eragitten dabean kostuen eguneratziak be euki dabe eragiña.

Tariferi begiratz gero, udalerrri guztieri etorkizuneko erronketako bat udalerrri guz-

tieri zerbitzu-mailla bera bermatzia dala diñue: "Gai hori funtsezkua da apurka-apurka eskualdeko herrixen tarifak bateratzeko oiñarrixak ezartzeko eta edozeiñek zerbitzuengaittik zerga berak ordaintzeko, Mankomunitatia osatzen dabean zein udalerritan bizi dan inporta barik".

losu Arraiz Mankomunitateko presidentiak azpimamaratu dabenez, ahalegin berezixa egingo dabe "birziklatzia bultzatzen jarraitzeko, kale-garbitzeta hobetzeko eta Mankomunitatea modu garden eta gertukuan kudeatzeko".

### Birziklapena, gero eta hobeto

Zabor-bilketari buruzko datuen eboluziñuari begiratz gero, Debabarrenak jauzi haundixa egin dau aurrera, "herritarren konpromisuari eta parte-hartziari esker". Esaten dabenez, "azken lau urtietan modu nabarmenian hobetu dogu birziklapena, 2015eko %39,66ko gaikako bilketatik 2019ko %55,63ra pasauta. Oindiok be badakagu zertan mejorau eta, horrelako porzentajiekin hobera egittia gatxagua izanda be, kontzientzia gehixago dakagu eta hobetzen segiduko dogu. Gero eta gehixago



Iosu Arraiz Mankomunitateko presidentia.

konturatzeko gara ingurumen-arazuekin, klima-aldaketarekin edo oin dala gitxi arte izan ditudun zabortegixak eragriten zitudun arazuekin, adibidez”.

Zaborren inguruko kudeaketia hobetzeko eta jendiari gauzak ahalik eta errezeko eta erosuen ipintzeko, ekipamendu barrietan diru asko inbertidu dabe, bestiak beste errefusa botatzeko edukiontzixak ipintzeko. Mankomunitateko presidentiaren berbetan, “errefusa biltzeko kontenedoriak ipintzia oso pauso positibua izan da eta jende gehixenak bihar dan moduan erabiltzen dittu. Baiña, sistema barri guztiakin pasatzen dan moduan, erabiltzen ikasteko eta horretara egokitzeko denpo-

**BIRZIKLATZE-ARLOKO PARTIDA NAGUSIÑAK 2020KO AURREKONTUAN**

- Poltsa biodegragarriak**  
(10 eta 50 litro)  
237.648 euro
- Paper eta kartoiaren bilketia**  
234.353 euro
- Ontzixen bilketa berezixa**  
190.004 euro
- Sensibilizazifua**  
160.076 euro
- Tamaifia haundikuen kudeaketia**  
146.900 euro
- Garbigunietako hondakiñen kudeaketia**  
42.912 euro
- Obra-hondakiñen garraia**  
38.932 euro



ria bihar da. Bixen bittartian, behin eta barriz errepikatu biharko da kontenedore grisa hondakin ez-birziklagarrixendako dala bakarrik eta ezin dogula erabilli lehengo kontenedore berde zaharrak bezala. Edozelan be, sistemak hobera egin dau, gai-kako bilketaren inguruko emaitzak argi erakusten daben moduan”.

**Europak ezarritakua lortzeko bidian**

Herritarreri informazifua ahalik eta gehixen gerturatzeko ahalegiñari jarraituta, Mankomunitateak 80 euro inbertiduko dittu biztanle eta urte bakotxeko bilketa eta birziklatze kontuetan, 2019xan baiño % 10 gehixago. Izan be, Arraizen berbetan, “2020ko aurrekontuko helburu nagusiñetako bat Europak ezarritako helburuak lehenbailehen bete ahal izateko aurrera egi-ttia dalako”.

Diru-sarreren atalian, baliabidiak lortzeko iturri nagusiña udalak ordaintzen ditudun kuotak osatzen dabe. Horrekin pagatzen dittue hondakiñen kudeaketia eta kalia garbitzeko zerbitzuak eragriten ditudun gastuak. Horrelakueri esker Mankomunitateak 13.134.185,92 euro jasotzen dittu guztira.

Diru-sarrera horretatik gehixena Ecoembes enpresari fakturautakuari eta papel-salmentari esker jasotakuari esker lortzen dabe, 732.048 euro hain zuzen be. Eta horrerri Eibarko Udalak gure herrixan kartelak kendu eta fatxadak garbitziagaitik egitten daben 80.630 euroko ekarpena gehittu bihar jako.

**San Andres  
Gozotegia**

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

**Bidebarrieta, 28**  
 ☎ 943 20 79 73

Izadi

**LORADENDA**

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1    Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar

CADENA  
**SER**

104,0 FM

**Funeraria-Ehortzetxe  
Mugica**

**EIBAR**

**Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27**

**ELGOIBAR**

**Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)**

**Bulegoa Eibarko erdialdean**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra**  
 ☎ **943 20 19 51**    [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea

**June Ibarloza (modelo):**

## "Gaur egun modeloen artean aniztasun handiagoa dago"

June Ibarloza 17 urteko modelo eibartarra da. Bere istorioa film batetatik ateratakoa dirudi. Kasualitatez hasi zen modaren munduan. Joan den urtean, Bilbon erosketak egiten zegoela, publizitate agentzia bateko emakume bat gerturatu zitzaion. Ustekabean harrapatu zuen. Bere modelo agentzia ezagutzeko gonbitea egin zion. Horrela hasi zen dena. Urte honetan zehar marka desberdinekin posatzen eta pasareletan desfileatzen ibili da.

**- Gutxien espero zenuenean sortu zitzaizun aukera.**

Bai, bapatean izan zen. Nik ez nuen espero mundu horretan sartzea. Ez zegoen nire buruan. Baina aurreko neguan Olenzerorako opariak erosten nengoen Bilboko Gran Vian, eta SF40 agentziako ardurduna hurbildu zitzaidan, euren agentzia ezagutzera joateko proposatuz. Amarekin nengoen eta "flipatuta" gelditu ginen. Hala ere, dirudienez jendea kalean fitxatzearena uste duguna baina maizago egiten da. Egun batzuk geroago joan ginen.

**- Egia da gaur egun modeloen artean askoz ere aniztasun handiagoa dagoela?**

Nire agentzian neska mordoa dago eta desberdinak gara gure artean. Aniztasun handia dago. Dena dela, egia da desfileetan edo pasaletan ezaugarri konkretuagoak eskatzen direla, esate baterako, altuera. Nik 1,78 neurtzen dut eta, hala ere, txikienetakoa naiz pasarelan.


**- Mundu berri bat ezagutzen ari zara.**

Ezer jakin barik sartu nintzen eta kanpotik ikusten dena baina askoz gehiago da-

goela esan dezaket. Oso gustora nago eta espero dut horrela jarraitzea. Batzuetan gure lana zalantzan jartzen da: objektu sentitzen garen galdetu izan digute, eta badi-rudi modelo bat ezin dela feminista izan. Eta gauza bateragarriak dira guztiz. Emakumeentzako iraingarria izan daitekeen zerbait ikusten baduzu edo zozter egin nahi ez baduzu, ezetz esan dezakezu, eta ez da ezer gertatzen. Momentuz hobby bezala hartzen dut. Nire asmoa ikasten jarraitzea da. Batxillergoa amaituko dut aurtten Eibarko Institutuan eta datorren ikasturtean ingeniari bat egiteko asmoa daukat. Balleta ere egiten dut eta dena konpaginatu ahal izatea espero dut.

**- Zelako lanak egin dituzu?**

Adibidez Pukas Surf eta Ternuarekin egin dut lan. Udan Pukas-ekoekin 2020ko bikinien kanpaina egin nuen estudio barruan, eta orain dela gutxi Ternuakoekin egon naiz Aralarren. Furgoneta baten aldatzen genuen arropaz, dena elurtua zegoen eta sekulako hotza egiten zuen. Beraz, esperientzia desberdinak izan dira, le-



Mdraft studio (Aitor Laspjur eta Ane Gorosabel)

ku eta lan egiteko modu desberdinekin. Bestalde, era askotako desfileak egin ditut (La Encartada Modako desfilea, Gueñese-ko Vestidos de Papel, GetxoModa...), baina gehien gustatu zaidana Goi mailako Diseinu Eskolak Guggenheim antolatutakoa izan da: kanpotik etorritako disenatzaile asko zegoen eta lekua ere aparta zen.

**- Zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Jende asko ezagutzen ari naiz eta asko ikasten ari naiz haiengandik. Hori da gehien gustatzen zaidana, denbora gutxian ikasten nagoela. Askok fijasatzen naiz. Bestalde, oso pertsona sozialean naiz, baina gehiago mundu honetan hasi naizenetik. Azkeneko desfilea, Guggenheim Museoan egin genuena, nazioarte mailakoa izan zen eta herrialde desberdinetako jendea zegoen (Italia, Frantzia, Ingalaterra, Alemania...) Ni agentziako berriena eta gazteena nintzen eta asko gustatu zitzaidan hain jende desberdinarekin egotea,

**- Aisialdian zer gustatzen zaizu egitea?**


Balletaz gain lagunekin irteera asko gustatzen zait. Bai etxean eta bai lagunek asko animatzen naute. Euren babes osoa daukat.



Ana Panova

# Martxan dago Auzolandegiak 2020 programaren kartel lehiaketa

Euskadin errolatuta dauden 18-30 urte bitarteko gazteen-tzat lehiaketa deitu dute, aurten Auzolandegiak programaren berri emango duen kartela aukeratzeko asmoz. Kartela egiteko teknika ezberdinez baliatzeko aukera dago (argazkiak, marrazkiak, collageak...) eta kartelaren irudia JPG formatuan aurkeztu beharko da, 72 ppp-ko bereizmenarekin eta 70 X 50 zentimetroko neurrian (bertikalean zein horizontalean). Horrez gain, irudiarekin batera, gazteak programan parte hartzeraz animatzeko aproposa den goiburua edo esaldiren bat ere bidali behar da (esaldia ez da irudian txertatu behar, izen-emate orrian idatzi baino, euskeraz zein gazteleraz). Datuekin bete beharreko izen-emate fitxa eta lehiaketaren inguruko argi-



bideak [www.gazteaukera.euskadi.eus](http://www.gazteaukera.euskadi.eus) helbidean daude eskuragarri. Lanak aurkezteko epea otsailaren 14ra arte egongo da zabalik eta kartelen irudiak zein izen-emate orria honako posta elektronikora bidali behar dira: [gazteaukera@gmail.com](mailto:gazteaukera@gmail.com).

Epaimahaikideek lanen originaltasuna eta programekin duten lotura kontutan hartuko dute kartela aukeratzeko orduan. 2020ko Auzolandegiak programako kartel garailearen egileak, joan-etorriko hegazkin bidaia bat irabaziko du (lankidetzat proiektu bat egingo den Hego Amerikako herrialdeen artean aukeratu dezake). Norberak bere kabuz egiteko bidaia izango da. Lehiaketan sarituriko kartela, bestalde, 2020ko Auzolandegiak programa iragarzteko erabiliko da.

2020 IKASTARO KATALOGOA

**LANGILEENTZAKO**

**DIRUZ LAGUNDUTAKO**

**IKASTAROAK** URTARRILETIK EKAINERA

**Espezialitateak:**

- AUTOMATIZAZIO ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
- MEKATRONIKA INDUSTRIALA
- INDUSTRI DISEINUA ETA FABRIKAZIO MEKANIKOA
- ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

  
ArmeriaEskola<sup>x</sup>

**Izen-ematea:**  
[ikastaroak@armeriaeskola.eus](mailto:ikastaroak@armeriaeskola.eus)  
[www.armeriaeskola.eus](http://www.armeriaeskola.eus)  
Isasi 36, EIBAR  
943 20 32 44

 **Lanbide**  
Euskal Enplegu Zerbitzua  
Servicio Vasco de Empleo

 **EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**  
HEZKUNTZA SAILA  
Lanbide Heziketako Saiburuordetza  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Formación Profesional



**EUROPAR BATASUNA**  
Europako Gizarte Funtza  
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du  
**UNION EUROPEA**  
Fondo Social Europeo  
El FSE invierte en tu futuro



laz 530 lagun federatu ziren mendian  
Deporren. Klubak 2.630 bazkide ditu egun.



Aurreko asteburuko irteeran  
ateratako argazkia.

## Deporreko mendizaleek Deba Bailararen Itzulia hasi dute aurten

**B**etikoari jarraituz, Eibarko Klub Deportiboko mendi batzordeko partaideek ondo zehaztuta dute urte berriko egutegia. Tartean egun bateko irteerak, astebukaerakoak (bi egun) eta 3-5 egunekoak sartzen dira, mendiko eskiko eta arroil jaitzierakoarekin batera, eta irteera teknikoak eta trailak ahaztu gabe. Egitarau horretan ekitaldi kulturalak ere badute bere tokia: Mendi Jardunaldiak ezin dira falta eta ezta urteotan, kalerik egin gabe, egiten dituzten Jardunaldi Mikologikoak.

Egun bateko irteerak 16 izango dira guztira eta esparru horretan Deba Bailararen Itzulia eta Artzaintza Naturbidea dira azpimarragarrienak. Deba Bailarako egitasmo berria da, aurreko asteburuan abiatu zena, eta aurten berau osatuko duten hamar etapetatik lau lehenak egingo dituzte, guztiak ere lehen hiru hilabeteotan. Urtarrilaren 25ean bigarren etapa osatuko dute (Ixua-Urko-Trabakua-Goierri, Zaldibarren amaitzeko), otsailaren 29an hirugarrena (Goierri-Erdella-Kanpazar) eta martxoaren 14an laugarrena (Kanpazar-Udalaitz-Ibarra, Aramaion amaitzeko). Aurreko zapatuan Deba-Kalamua-Eibar lehenengo etapa egin zuten, 18 kilometro gutxi-asko: *“38 lagun izan ginen eta, hotz izan bagenuen ere, merezi izan zuen; mendira joaten garen bakoitzean moduan. Paraje oso politak ikusi genituen, hemendik gertu, hodei-itsa-*

*soaren panoramikan”*, dio Mari Fran Arana zuzendaritzako kideak. Hilaren 25eko bigarren etapak ere 18 kilometro inguru izango ditu eta Ixuatik Zaldibarko Goiherrira joango dira: Ixuatik Ermura joko dute lehenengo, handik Asuntza baserrira, gero Trabakuara, bertatik Zengotitagañera, ondoren San Juan ermitara, eta Zaldibarren amaituko dute zeharkaldia. Interesatuak aukera duzue izena eman eta bertan parte hartzeko.

Artzaintza Naturbidea proiektuak iazkoari jarraituko dio eta aurtengo sei etapekin amaituko da: martxoan hasi eta azaroan, Otxandion amaituko den etaparekin, izango du azkena. Egun bateko beste irteerak honakoak dira: otsailaren 15ean Arburuko Harrira (hor sagardotegian bazkalduko dute), ekainaren 13ko Finalista Eguna, uztailearen 18ko Iparraldera (Olette-Larhun-Ascaine), azaroaren 21ean Aketegira, koba bisitatuz eta, amaitzeko, abenduaren 12ko Aulesti-Iluntzar-Nabarniz etapa, urteko azken bazkaria tarteko. Aranak dioenez, *“sagardotegikoa eta azken hori dira predikamendu gehien”* dituztenak.

### Asmo guztiak asetzeko irteerak

3-5 egunekoak Aste Santuan eta urteko zubietan egiten dituzte. Aurten Aste Santuan Lleidako Pirinioetara joango dira, *“Sant Llorenç de Morunys inguruko men-*

*dateetara”* eta han egingo dituzte bost egun, *“ohiko moduan, Aberri Eguna tarteko”*. Hiru eguneko irteerak maiatzaren zuzian eta urrikoan egingo dituzte: aurrenekoan Iparraldera joango dira (*“gero eta gehiago jotzen dugu haruntz”*) eta bigarrengoan Palentziara. Bi eguneko astebukaerako irteerak hiru izango dira: ekainean eta uztailean 2000ko Pirinioak egingo dituzte, eta irailean Picos de Europa joango dira. *“Bestela ere, federatuta egotea komeni bada ere, azken irteera horietarako derrigorrezkoa da”*, diote Mendi Batzordeko ordezkariak.

Badira beste irteera mota batzuk ere: mendiko eskia praktikatzeko aukera izango da aurki, ekainean eta irailean bi irteera tekniko egingo dira hainbat teknika hartzeko asmoarekin eta maiatzan arroil jaitziera egingo dute. Horiez gain, Kalamua Korrikalari Taldekoek urtaro bakoitzeko trailak jarraituko dituzte antolatzen eta, ekintza *“kulturalagoei”* eutsiz, hor izango dira urriko Jardunaldi Mikologikoak eta, nola ez, martxoan bizi ahal izango ditugun Mendi Jardunaldiak. *“Aurten Juan Vallejo, Iñurtegi anaiekin hainbat menditan jardundakoa, izango dugu gonbidatu gisa; jakina, mendi inguruko pelikula onenekin batera”*, esan digu Mari Fran Aranak. Egutegi ezin beteagoa, beraz, urte osorako mendizaleek prestatu dutena.

## Eibar FT-k Atletico de Madrid hartuko du bihar eta Badajozen jokatu du Kopa partidua 23an

Ligako bigarren itzulia hasteko ez du aurkari erraza Eibarrek, orain arte 1. Mailan lporuan jokatuako partidu guztietan irabazle izan den Atletico de Madridek bisitatuko baitu lporua bihar gaueko 21:00etan. Mendilibarren mutilak, hala ere, ahaleginduko dira dinamika horrekin apurtzen eta hain beharrezkoak dituzten puntuak eskuratzen. Eta datorren astea mugitua izango dute, eguenean Kopako partiduari egin beharko diote aurre-eta; oraingoan Badajoz izango dute aurkari, partidu bakarrera, Extremaduran jokatu beharreko neurketan (21:00etan). Lehenengo kanporaketan Logroñes eta bigarrenengo Cacereno kanpoan laga ondoren, berriro Extremadurarako bidea hartuko dute eibartarrek Kopan aurrera egiteko asmoz. Badajozek, gainera, oroitzapen onak ekarriko dizkie, bertan igo baitzuten 2. B mailara orain dela urte batzuk.

Emakumezkoen lehen taldeak, bestalde, garaipen bikaina lortu zuen Iruñean, Osasunari 2-4 irabazita. Eta Vitoriak (3. mailan) eta Eibar Urkok (Ohorezko Erregionalean) lidergoa eskuratu dute. Ea horrela amaitzen duten eta bien igoera ospatzeko aukera dugun!



### Garuneko Paralisisidunen talde berria

Garuneko Paralisisia duten jokalariz osatutako talde horrek bere debuta egingo du lehiaketa ofizialean bihar eta etzi lbin jokatu den lehen jardunaldian. Garuneko Paralisisidunen kirol federazioak antolatutako txapelketan zortzi taldek hartuko dute parte, lau jardunalditan banatutako partiduekin: lehenengo hiruretan guztiek elkarren aurka jokatu dute partidu bakarrera (otsailean Extremaduran eta martxoan Pineda del Mar-en) eta Malagan maiatzean jokatu den azkenekoan azken play-offak izango dira jokoan.

## Eibar Eskubaloiko lau jokalarik selekzioarekin

Leire Treviño, Jokin Aja eta Markel Valenciano kadeteek eta Bernart Abad bigarren urteko infantilen atezainak Euskadiko selekzioarekin jokatu dute selekzio autonomikoen arteko txapelketa; ez hori bakarrik, Treviñok brontzezko domina ere eskuratu baitzuen. Bestalde, azken asteburua oso emankorra izan da Eibar Eskubaloiko ordezkariarentzat: horrela, 1. Maila Nazionalean eibartarrek 26-35 irabazi zuten Egian eta Mecalbe emakumezkoen senior taldeak 22-30 irabazi zuen Urretxun. Harrobiko talde gehienak ere garaile izan ziren jokatuako ia partidu guztietan.



## Eibar Igerixaneko emakumezkoak txapeldun Gipuzkoako Ligan

Azken lau hilabeteetan jokatuako txapelketa horretako lau jardunaldiak amaituta, Eibar Igerixanekoak izan dira onenak emakumezkoen arloan. Azpeitian, Eibarren, Bergaran eta Oñatin izan dira lehiaketa horiek, infantil, junior eta absolutu mailatan jokatuakoak. Gure herriko emakumezkoen talde horretan absolutu mailako hiru, junior mailako sei eta infantiletako beste zortzik hartu dute parte.

Bestalde, abenduaren amaieran IX. San Silbestre edizioa jokatu zen lporuako igerilekuan, jai-giroan murgildutako ekitaldian. Eta Jon Osak Ordiziako 37. Nazioarteko Gabon Torneoan hartu zuen parte, maila handiko hainbat herrialdeetatik etorritako beste 300 bat igerilarirekin batera. Hori gutxi ez, eta finalera iritsi zen 50 metroko bizkar proban, hiru garren egiteko.



## ASTEBURUKO AGENDA

### FOBALLA

#### 1. Maila

EIBAR - Atletico de Madrid (bihar, 21:00)

#### Emakumezkoen 2. Maila

EIBAR - Parquesol (etzi, 12:30)

#### 3. Maila

Pasaia - VITORIA (bihar, 16:30)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

EIBAR B - Elorrio (etzi, 18:00)

#### Ohorezko Erregional Maila

EIBAR URKO - Aretxabaleta (bihar, 16:00)

#### 1. Erregionala

Aloña Mendi - URKI (etzi, 16:30)

EIBARTARRAK - Bergara (bihar, 18:00)

#### Emakumezkoen Gorengo Maila

Beti Gazte - EIBAR (bihar, 18:00)

#### JUBENILAK

#### Ohorezko Maila Nazionala

EIBAR - Logroñes (etzi, 17:15)

#### Euskal Liga

EIBAR B - Danok Bat C (gaur, 19:45)

#### KADETEAK

#### Euskal Liga

EIBAR - Danok Bat C (bihar, 13:45)

### FOBALL-ZALETUA

Ipur Sagard. - Azkena Adahi (bihar, 09:00)

Durango - Los Paisanos (bihar, 09:00)

Feredu - Illunpe Aretu (bihar, 10:30)

Slow XOK - JMR Erreformak (bihar, 12:00)

Garajes Garcia - Bar Txoko (etzi, 09:00)

Chic - La Jara Reformas Hiru (etzi, 10:30)

### ESKUBALOIA

#### 1. Nazional Maila

Avefor Huesca - SOMOS (bihar, 19:30)

#### Emakumezkoen Gipuzkoako 1. Maila

MECALBE - Egia (bihar, 18:30)

#### Gipuzkoako 1. Maila

HARITZA - Ordizia Siglo XX (bihar, 16:30)

### ERRUGBIA

#### Ohorezko B Maila

AVIA - Universitario Bilbao (bihar, 16:00)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

Rugby Murcia - AVIA (etzi, 11:30)

### SASKIBALOIA

#### Gipuzkoako 3. Maila

AVIA - Elorri Aldapa (bihar, 18:15)

### WATERPOLOA

#### Euskal Herriko 1. Maila

URBAT - Claret Askartza B (gaur, 21:45)

#### Emakumezkoen Euskal Herriko 1. Maila

URBAT - WP 9802 B (etzi, 15:35)

AGENDA OSOA GURE WEB ORRIAN

## Eibarko Txirrindulari Elkarteak zehaztu du denboraldi berria

Aurreko zapatuan egindako urteko batzar orokorrean, herriko txirrindulari elkarteak denboraldi berrirako egutegia zehaztu zuen eta horko proba bat, aurten hirugarrenoz jokatuko den emakumezkoen Eibar Hiria Saria, UCI mailakoa izango da; aurreko edizioetan lasterketa horrek izandako arrakastak ahalbidetu du jauzi hori ematea. Otsailaren 16an 11. Udaberriko kontzertua eskainiko dute Coliseoan; handik astebetara, 23an, junior mailako

42. Udaberri Saria jokatuko da; martxoaren 22an, kadete mailako IV. Eibarko Txirrindulari Elkarte Sari Nagusia amaituko da Urkizun; apirilaren 5ean, elite eta 23 urtetik azpiko mailako 49. Valenciaga Memoria-larekin izango da hitzordua; maiatzaren 17an aipaturako emakumezkoen lasterketaren hirugarren edizioa izango da; ekainaren 14an, jubenil mailako San Juan Sari Nagusiak 85. edizioa biziko du; urriaren 4an, 17. Bizikletaren Eguna egingo



dute; eta, azkenik, Txistorra Egunak bere 18. edizioa ospatuko du azaroaren 28an.

Bestalde, zikloturisten lizentziak berritzeko kanpainaren barruan, hilabete honetako eta

otsaileko eguaztenetan zerbitzua eskainiko dute elkarteak lokalean, 19:00etatik 20:00etara. Informazio gehiagorako Federazioko web orria kontsultatu daiteke: [www.gtxe.eus](http://www.gtxe.eus)



## Kalamuako bost ordezkari sailkatu dira Espainiako txapelketarako

Aurreko domekan Barakaldoko Lasasarre kiroldegian jokatutako sambo eta grampling borroka modalitateetako Euskadiko Opean parte hartu zuten Kalamuako bost ordezkariak Espainiako txapelketan parte hartzeko txartela eskuratu zuten. Taldeka Euskadik irabazi zuen torneoan, Nafarroa, Burgos eta Asturiaseko taldeak ere izan ziren. Sambo modalitate-

an Jonatan Garcia, Aitzol Galarragak eta Buyannemekh Munkhsukh-k urrezkoa irabazi zuten eta Jonatan Terronek zilarrezkoa; grampling-ean, bestalde, Javi Lassak eta Jonatan Garcia urrezko domina irabazten zuten bitartean, Terron, Galarraga eta Munkhsukh zilarrekin bueltatu ziren. Emaizta horiekin bostak Espainiako txapelketan izango dira.

## Urbateko zazpi waterpolista Euskal Herriko selekzio absolutuan

Euskal Herriko emakumezkoen eta gizonezkoen selekzioek Urbateko waterpolo taldeko zazpi jokalariek sartu dituzte azken deialdian: Alaitz Ibarrola, Ezoz Akizu, Jone Gomez, Unax Unzeta, Mikel Basterrika eta Eneko eta Jon Treviño. Bestalde, asteburuko lehiak eskuzabal jokatu zuten Urbatekin: gizonezkoen senior taldeak 16-3 irabazi zion Getxori Euskal Herriko Kopako final-zortzirenetan eta gaur Askartza B izango du zain klasikoa bihurtu den norgehiagokan. Infantil taldeak ondo irabazi zion W Nafarroari (21-14) eta, aurreikuspenen kontra, klubeko txikienek garaipen bikoitza lortu zuten Gasteizen, Lautadako bi ordezkariak gaindituz. Master mailan, bestalde, eibartarrek seina berdindu zuten Lautadarekin.



## Senperena anaiek gogor jarraitzen dute pistan

Eibar Energia Hiria taldeko txirrindulariek hirugarren postuan amaitu zuten open mailako lehiaketa pistako Espainiako Kopako lehen jardunaldian. Astigarragako Urko eta Telmo Senperenak aurreko denboraldietan ere bikain jardun dute pista modalitatean eta Urkok, esaterako, iaz Gipuzkoako txapela jantzi zuen Donostiako Antonio Elorza belodromoan Klub Deportiboko taldearekin bederatzigarren jardunaldian jokatutako proba irabazi ondoren.



## Bikotea hirukotearen aurka domekan Astelenako jaialdian

Domekako pilota jaialdia berezia izango da, Aspek aspalditik jokatu gabeko neurketa mota antolatu duelako lehenengo partidurako: bi pilotari hiruren kontra, nor baino nor. Elezkanok eta Bikuñak osatuko dute bikotea eta, aurrez-aurre, Pello Etxeberria, Dario eta Tolosa izango dituzte. Jaialdiko beste bi norgehiagoketan binakako txapelketetako partiduak jokatu dira: partidu nagusian, 1. mailakoan, Jaka/Za-

baleta gaur egungo bikote liderrak eta Altuna/Galartzak neurtuko dituzte indarrak (Altunaren parte-hartzea zalan-tzan badago ere); eta, promozio mailakoan, Zabala/Ruiz eta Salaberria/Garmendia izango dira lehian.

Gaur, bestalde, afizionatuen mailako hiru partidu hartuko ditu Astelenak. 19:00etan hasiko den jaialdian, eibartarren arteko norgehiagoka izango da aurretik: eskolarteko alebin



*Jaka, Altuna eta Galartza martitzeneko pilota aukeratzeko saioan.*

mailan, Ibarra/Varona eta Urkiaga/Segurola bikoteen artekoa. Jarraian federatuen arteko beste bi partidu, 2. mailako helduen parte-hartzearekin:

Agirresarobe/Zubizarreta Eibarko bikoteak Elgoibarko Lagunak-ekoa izango du aurkari eta Conde/Astigarragak Le-gazpiko ordezkaria.

## Eibarko Kirol Mahaiaren inguruko bilera hilaren 27an Deporren

Gaizka Bilbao eta Alfredo Cobo Eibarko klub ez profesionalen ordezkariak Eibarko Kirol Mahaiaren deialdia egin diete klubetako beste ordezkariari hilaren 27an arratsaldeko 19:00etan bilera egiteko Klub Deportiboan: "Zuen iritziak, kezak, zalantzak, beharrak... jasotzea nahiko genuke Kirol Mahai horretan jakinarazteko eta behar den bezala zuek denok ordezkatzeko". Kirol Mahaiaren esandakoak "zuenganatzea" eta klubeetakoena "bertaratztea" dira aipatutako ordezkarien asmoa. Iritziak honako helbi-deetan jasoko dituzte: alfredocobo3@gmail.com eta gaizkabilbao@irakasle.eus

## Txakur-kros denboraldia bigarren zatian sartu da

Aurreko asteburuan inguruan lehiaketarik ez zegoenez, gure herriko bikotea Aragoiko Botorrita herriraino joan zen, Zaragoza inguruko herri horretan jokatzeko Aragoiko ligako laugarren proban parte hartzera. Zortzi kilometrotako ibilbide lauan, Andoni Mayok laugarren postua eskuratu zuen Dexter txakurrak la-



gunduta, 90 parte-hartzaile izan zituen lasterketan. Behin proba nagusia amaituta, bikote mistoez osatutako kilometro bateko luzera zuen erreleboan hartu zuten parte Sonia Dominguezek eta Andoni Mayok, Zeus txakurraekin, hauek ere laugarren postuan amaitzeko. Domekan hurrengo erronka izango dute Casalarreinan, La Rioja Adopta ligako hirugarren proban.



## Urkik igoera fasea jokatu du derbia irabazi eta gero

Aurreko asteburuan Eibartarrak-en aurrean lortutako garaipenarekin maila igotzeko fasea jokatzeko txartela eskuratu du 1. Erregional mailako Urkik, oraingo fasea amaitzeko bi jardunaldiren faltan. Gol bakarra izan zuen neurketa parekatua izan zen oso. Eibartarrak-ek, bestalde, aukerak ditu oraindik igoera fasea jokatzeko, aipatutako azken bi jardunaldietako emaitzen arabera.

## Avia Eibar Rugbyko emakumeen taldeak bi fitxaketa egin ditu



Asteburu honetan ekingo dio Eibarko taldeak Ohorezko B mailako ligari Murtzian eta, Iberdrola Ohorezko mailara igotzeko helburuarekin, taldea indartzeko ahaleginean Zeelanda Berriko bi jokalaririk fitxatu dituzte. Harono Miere Ngairi eta Kiritapu Westlake dira Aviarekin jokatu dutenak: lehenengoak normalean 2. lerroan jokatzeko badu ere, aurrelari moduan hainbat posizioetan jokatzeko gai da; Kiritapuk, bestalde, 3/4ean jokatzeko du eta jokoa dinamizatzeko gauza da.



**RAMON BEITIA:** "Zertarako ostoz jantzi".

Mireia Alberdi nutrizionista bergararrak "Tupper osasungarriak" ikastaroa eskainiko du urtarrilaren 28an Portaleko sukaldean, ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik. Tailer praktikoa izango da eta aste osoko tupperrak modu errazean eta osasungarrian planifikatzen eta prestatzen erakutsiko du. Gaiak arrakasta izan du eta plazak beteta daude.

**MIREIA ALBERDI**  
(nutrizionista):

**"Gorputzak asko eskertzen du urte guztian zehar koherentzia bat izatea"**



**- Gabonak pasata, hartu ditugun kiloe-kin kezkatuta egoten gara. Nola bueltatu gaitzke normaltasunera?**

Gabonen aurretik gure egunerokotasuna osasuntsua baldin bazen, egunerokotasun horretara bueltatzea besterik ez da. Astebete edo pare bat aste beharko ditugu erritmoa hartzeko, baina ez dugu ezer berezirik egin behar. Aldiz, ohitura onak ez bagenituen, agian orain da momentua ohitura horiek aldatzeko, edo ez. Hau da, egutegiak esaten duelako ez da zergatik momentua izan behar. Agian beste une bat topatu behar dugu. Azken finean, ohiturak aldatzea esfortzu bat eskatzen du eta fronte asko zabalik baditugu beharbada hurrengo baterako utzi beharko dugu. Bestalde, gure buruaren erritmoak errespetatzea garrantzitsua da. Batzutan ikusten dugu ez dugula nahi duguna lortzen eta pikutara bidaltzen dugu dena. Hobe da denbora gehiago hartzea.

**- Posible da sasoi eta ospakizun berezietan osasuntsu jatea?**

Norberaren aukera da. Harritzen nau jente ugari asko zaindu eta, bat-batean, sasoi jakinetan dena pikutara botatzeak.

Jasotzen ditugun mezuak oso kontra-erriak dira. Zoriontsu izateko jan eta edan egin behar da. Ultraprozesauak jatea zoriontasunarekin lotzen da. Eta, aldiz, estetikoki ematen dizkiguten irudiak jende oso argalarenak dira. Beti gaude borroka horretan: zer egin behar dut? Zoriontsua izan eta nahi dudana jan, edo frustratuta bizi eta kriston gorputza eduki? Ematen du borroka bat izan behar duela eta ez dauka zertan izan behar. Agian ez daukat bitzita osan dietan egon beharrik, baizik eta osasuntsu jan, nire burua errespetatu, horrelako ospakizun eta sasoiaren beste modu batean jan eta beste ohitura batzuk eduki... Gorputzak asko eskertzen du urte guztian zehar koherentzia bat izatea.

**- "Tupper osasungarriak" tailerrean zer ikasi ahal izango dugu?**

Informazio orokorra emango dut (tupper motak, zelan erabili, zelan garbitu, zelan kontserbatu) eta aste osoko tupperrak nola planifikatu azalduko dut. Modu praktikoan egingo dugu, hau da, jendeak hurrengo egunean erabiliko duen tupperra arratsalde horretan prestatuko dugu. Astebetean gure tupperra zelan bete deza-

kegun ikusiko dugu, adibide desberdinekin eta modu osasuntsu eta erakargarrian.

**- Tupperra ezinbesteko tresna bilakatu da askorentzat?**

Orain dela urte batzuk pentsaezina zen tupperra lanera eramatea, baina 2008ko krisiaren ondorioz jendeak asko erabiltzen ditu. Ikastaroan erramintak eskainiko ditugu aste osoko tupperrak planifikatzeko, ez aspertzeko, eta beti ere modu osasungarrian egiteko. Asmoa lana erraztea da.

**- Planifikazio on baten garrantzia azpimarratuko duzu...**

Lehen ez zegoen inolako arazorik, egunean bertan erosi eta egunean bertan sukaldatzen zelako. Gaur egun gehienak etxetik kanpo gaude eta planifikatzea behar-beharrezkoa da. Tartetxo bat hartu behar dugu, domeka arratsaldea izan leike, aste osoko planifikazioa egiteko, gero erosteko on bat egiteko eta jakiteko zein momentutan sukaldatu behar dugun. Sarritan inprobisatu egin behar dugu, ezin izan ditugulako erosketak egin, eta etxean ditugun kontserbekin tupperra zelan prestatu ikusiko dugu baita ere. Begetariano eta bega-noentzako aukerak ere ikusiko ditugu.



**IBAI REDONDO**  
(LABeko hezkuntza politikako arduraduna)

## “Ikasleen ahalduntzea, autonomia eta ikuspegi kritikoa sustatu behar du ebaluazio hezitzaileak”

UEUk ‘Egungo Eredua Irailiz. Ebaluazio Hezitzailea Iruten’ II. jardunaldiak egingo ditu otsailaren 8an Markeskua jauregian, LAB sindikatuarekin elkarlanean. Antolatzaileen berbetan Haur Hezkuntzatik Unibertsitatera Ebaluazio Hezitzailea posible dela erakusteko jardunaldiak izango dira. Horren harira, antolakuntzan ibili den Ibai Redondori elkarrizketa egin diote UEUko webgunean.

**- Iruten dinamikaren barruan kokatzen da jardunaldia. Nondik abiatzen da dinamika hori?**

Euskal Herriak ez du hezkuntza sistema propioirik eta ditugun hezkuntza sistemak ez daude gure herriaren garapen kultural, sozial edo ekonomikorako pentsatuta. Iruditzen zaigu egungo hezkuntza sistemak, espainiar eta frantsesaren menpekoak, kapitalaren menpekoak, agortuta daudela, zaharkituta. Hezkuntza sistema eraldatuz, hezkuntza sistema burujabea eraiki behar dugu. Hezkuntzak behar duen eraldaketa horretan, oztopo handia da azterketa eta kalifikazioan oinarritzen den ebaluazio eredua. Iruten filosofia, gure hezkuntza sistema propioa eraikitzean oinarritzen da; hezkuntza sistema euskalduna, euskal kulturaren transmisioa bermatuko duena, hezkidetzalea, inklusiboa... Behar dugun hezkuntza sistema berri hori iruteko oztopoa da ebaluazio eredu klasikoa. Hezkuntza eraldatzeko beharrari erantzuten dio Iruten dinamikak, filosofia

ekintzailea da, eginez eraldatzea, baita ebaluazio eredua ere.

**- Ebaluazio hezitzaileaz ari garenean, zertaz ari gara?**

Maiz, ebaluazioa azterketekin eta notekin irudikatzen dugu; selektibitatea eta baxoa dira sistema horren erakusgarri nagusiak. Ikasleei urduritasuna, antsietatea, frustrazioa edota haserrea bezalako bizipenak eragiten dizkie. Azterketa ereduaren bidez, ikasleen sailkapena egiten da: “onak / txarrak”, “argiak / tontoak”... Hain justu hezkuntzak izan behar ez duen guztia da ebaluazio eredu hau. Ebaluazio Hezitzaileako ez dago eredu bakarra; baina ebaluazio hezitzailea, hobetza bideratua dago: ekitatean, aukera berdintasunean, ikuspegi hezitzailean, ongizatea erdigunean kokatzen oinarritzen da. Azterketa-kalifikazioa binomioarekin apurtzen da, egunerokotasuneko lana ebaluatzen delarik. Ebaluazio horretan, ikasleak, irakasleak edo ikastetxeak ez dira objektuak, subjektuak baizik. Ikasleen ahalduntzea, autonomia eta ikuspe-

gi kritikoa sustatu behar du. Joxe Mari Auzmendi Hik Hasiko sortzaileak dio ebaluazioa honakoa izan beharko litzatekeela: “eskola komunitateko kideak eskolara bidean eta handik bueltan duten poza, irrika, jakin mina, harreman mota”. Ikasleen eta hezkuntza komunitatearen ongizatea izan behar du helburu ebaluazio eredu on batek; autoebaluazioan eta koebaluazioan oinarritua.

**- Zein eratako adibideak ekarriko dituzue jardunaldira?**

Ebaluazio hezitzailea ez da amets bat, errealtatea da hainbat ikastetxe eta unibertsitatean. Eibarrera egiten ari den guztiaren lagin bat ekarriko dugu. Erakutsiko dugu, oztopoak oztopo, haur eskolatik unibertsitatera, posible dela ebaluazioa sistema eraldatzea. Haur eskolan, lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan, lanbide heziketan eta unibertsitatean egiten ari den eraldaketa ezagutuko dugu. Ikastetxeetako irakasle-hezitzaileak izango dira euren esperientzia praktikoaren berri emango digutenak.

## Arrakastatsu hasi da Martin Zalakain 2020 bira



Antzerkia, literatura, musika eta dantza batzen dituen Argia dantzari taldearen “Martin Zalakain” ikuskizuna Elgoibarrera ailegatu da domekan. Olaizaga kiroldagian eskainiko dute emanaldia, 20:30ean, eta sarrerak salgai daude Kutxabanken bidez. Juan Antonio Urbeltzen eta Ander Lipusen gidaritzapean sortutako ikuskizunean Eibarko Kezka dantza taldeak hartzen du parte, Argia (Donostia), Duguna (Iruñea), Maritzuli (Biarritz), Elai-Alai (Portugalete), Haritz (Elgoibar), Gure-kai (Deba), eta Arkaitz (Añorga) dantza taldeekin batera.

Arrakastaz abiatu du 2020 urtea Martin Zalakainek Gasteizen. Harrera bero-beroa eskaini zioten gasteiztarrek ikuskizunari eta kultura eta politikaren alorreko hainbat ordezkari (Bernardo Atxaga, Mikel Urdangarin, Jozu Zabala “Hertzainak”, Pedro Elosegi Arabako Batzar Nagusietako presidentea eta Iñigo Urkullu Lehendakaria) gozatu eta gorapaitu dute emanaldia, ikusi eta gero.



## Santa Agedarako entsegu irekia egingo du Sostoak

Urteroko martxan, aurten ere Santa Ageda kalejira egingo dute Sostoak abesbatzako kideek eta, hori dela eta, eurekin batera santaeskean ibili nahi dutenentzat entsegu irekia egingo dute urtarilaren 30ean, 20:30etik 21:00era Eibarko Musika Eskolan. Irteera, berriz, otsailaren 4an izango da eta Koskor taberna aldameneko eskaileretatik abiatuko dira, 20:00etan, kantu eta kopia artean ohiko ibilbideari jarraituta (Kultu, Ibarkurutze, Urkizu) Urkizuraino jeisteko.

## Gwendal talde beteranoaren kontzertua gaur Coliseoan

Gaur emango du kontzertua Gwendal taldeak, 22:00etatik aurrera Coliseo antzokian. Musika zeltiarra egiten duen talde ezaguna Britainian (Frantzia) sortu zen, 1972an, eta Youenn Le Berre (flauta, bonbarda, gaita), Vincent Leutreau (bibolina), Ludovic Mensil (kitarra akustikoa eta elektrikoa), Jérôme Gueguen (pianoa), Michel Vally (baxua) eta David Rusouen (bateria) musikoei osatzen dute. Sarrerak 25 euro balioko du (17'5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



## San Blas opilak egiteko ikastaroa

Arrate Kultur Elkarteak ikastaroa antolatuko du San Blas opilak ikasi nahi dutenentzat. Otsailaren 1ean emango dute, 11:00etatik 13:00era, Portalean (sukaldetan) eta irakaslea Eburne Zenarruzabeitia izango da. Informazioa eskatzeko zein izena emateko zuzenean joan daitezke Arrate Kultur Elkartera edo, bestela, 638284912 telefonora deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi. Bestalde, ikasitakoa praktikan ipintzera animatzen direnekin dastaketa egingo dute Topalekuan San Blas egunean (otsailaren 3an), 18:00etan. Bakoitzak bere opila eraman eta Arrate Kultur Elkarteak txokolatea jarriko du, denon artean jateko.



## Bilera deitu du AKEBAIk

AKEBAIk kideen artean, eta herritarren artean, ilusioa pizteko ekintzaren bat prestatzeko ideiak biltzeko asmoz bilera irekia antolatuko dute datorren eguaztenerako, 18:30ean Klub Deportiboan. Herritar guztiak daude parte hartzerara gonbidatuta.



## Danborradaren kontzertua

Astlehenean ospatuko da San Sebastian eguna eta, horren harira, Danborradaren kontzertua emango dute domekan Usartza Txistulari Taldekoek, Eibarko Danborradako ordezkariekin eta Molto Vivace metal boskotearekin batera. Gure herriko eta beste batzuetako danborradetako doinuek osatuko duten emanaldia 12:30ean hasiko da, Coliseo antzokian.

## Umeentzat marrazki lehiaketa

As Burgas Galiziako Etxeak umeentzat XXV. Gabonetako Marrazki Lehiaketa antolatuko du domekarako. Adinaren arabera maila bi (6-9 urte bitartekoa eta 10-12 urte bitartekoa) bereiziko dituzte eta nagusien mailako irabazlearen marrazkia hurrengo Gabonak zoriontzeko erabiliko dute. Lehiaketa 16:30ean hasiko da eta, amaitu eta jarraian, parte hartzen duten haur guztientzat txokolate-jana egingo dute.

## "Calibre 16" erakusketa

Gaur 19:00etan inauguratuko dute Portalean "Calibre 16" erakusketa. Artista bisualen talde baten eskutik orain dela 10 urte Mexikon TACO Arte Garaikideko Tailerrak abiatu ziren eta horietako hainbaten artelanak bildu dituzte erakusketan. Otsailaren 9ra arte egongo da ikusteko moduan, martitzenetik domekara bitartean, 18:30etik 20:30era.

## Abenturaz betetako Lur eta Ametsen ikuskizuna Armerian

Otsailaren 7an Euskal Herriko zinemetan estreinatuko duten "Hau bai abentura! Lur eta Amets" filma aurkeztuko dute gaur Eibarren, 18:00etan Armeria Eskolan, asmo horrekin martxan dagoen ikuskizun-biraren barruan. Arduradunen berbetan, "2020 urteari abenturaz-abentura emango diogu hasiera, Lur eta Amets anai-arreben eskutik. Izan ere, urtarrilean, historiako pasadizo berezietatik etorritako autobusean biraka ibiliko dira protagonistak, hilabetez Euskal Herrian zehar, otsailean estreinatuko den pelikula aurkezteko eta ikuskizun abenturazalea eskaintzeko". Bira hau Durangoko Azokan estreinatu zen, filmarekin batera, eta otsailaren 7an zinemetara ailegatu aurretik, 11 geldialdi izango ditu, tartean gaur Eibarren egingo dutena.

Sortzaileen berbetan, "gure herriaren historiaren irakurketa gure ikuspuntutik berreraiki eta eskuragarri jartzeko asmoz" sortu zuten Lur eta Amets proiektua Ikastolen Elkarteak, Katxiporretak eta Elkar argitaletxeak. 2015. urtean Euskal Herriaren historia ezagutza liburua sortu zuten eta ondoren etorri ziren haurrei zuzen-



duriko bederatzi ipuin eta galdera-erantzun mahai jokoa. Orain, ilustraziotik, gure kale, antzokietara eta pantaila handira salto egingo dute Lur eta Ametsak, Euskal Herriko zinemetan otsailaren 7an egingo den estreinaldi handiarekin. Aurreratu dutenez, haurrei eta familia osoari zuzenduriko animaziozko filma da, "garai eta toki ezberdinetara bidaiatzera gonbidatuko gaituena".

## Familia osoarentzat txotxongilo ikuskizuna bihar arratsaldean



Zurrunka Teatroak "Aioko" txotxongilo ikuskizuna aurkeztuko du bihar arratsaldean, 17:00etan Coliseo antzokian. Familia osoarentzat euskeraz taularatuko duten lanaren sortzaileak eta bertan parte hartzen duten antzezleak Eñaut Gorbea eta Nerea Ariznabarreta dira. Txotxongiloak, itzalak eta kontaketa batzen dituen ikuskizuna da "Aioko" eta izen bereko uhartean gertatutako istorioa kontatzen du: "Hango biztanleak ez ziren jabetzen gizarte-

rentzat aniztasunak izan ditzakeen baloreaz. Denbora asko zen uharte argitsua izateari laga ziola eta iluntasun handi bat euren bihotzen jabe egin zen. Bi pertsona oso berezi, Azkartxin eta Moteltxin, izango dira istorioaren protagonistak. Euren bitartez, komunitateak dituen komunikazio eta zaintza arazoak berri izango dugu. Bidaia fantastiko horretan abenturak, ezusteak, jeinuak eta argiz beteriko itzalekin egingo dugu topo". Sarrerak 5 euro balio du.

## "404 egun Markos barik" erakusketa zabaldu dute Ermuan

Eguaztenean zabaldu zuten Ermuko Lobiano Kultur Gunean "404 egun Markos barik", Markos Gimeno Vesgaren obrara hurbiltzeko erakusketa (edo, berak horrenbeste maite zituen hitz-jokoak gogoan, AitzakiHIZKETA edo PRETEXTOsición). Mota guztieta hitz joko eta palindromoetan aditua zen Markos eta, hori dela eta, lagunek hizkuntzarekiko zuen pasioa gogoan izan eta, arlo horretan egin zuen lan handia omen du nahi izan dute, erakusketa prestatuta. Otsailak 2 egun palindromikora arte ikusgai izango da obra, astelehenetik barixakura 05:50etik 20:02ra eta "astoburuetan" 12:21etik 02:20ra.



## Zapatuetako tailerretarako aurre-matrikula hilaren 20an zabalduko dute

Zapatuetako tailerretan parte hartzeko aurre-matrikula egiteko epea astelehenean, urtarrilaren 20an zabalduko da. Saio horietan 5 eta 11 urte bitarteko haurrek har dezakete parte. Arlo ezberdinetako tailerrak eskeintzen dira, adinaren arabera saikatuak, eta bakoitzak egutegi eta ordutegi berezia dauka. Argazki albumak, Aratosteak, magia, foto transfer eta sukaldaritza osasungarria tailerrak izango dira negu honetan eskainiko dituztenak. Bakoitzari buruzko informazio zehatza ikusteko zein izena emateko Udaleko web orrira (eibar.eus/eu/kultura) jo dezakezue.





### San Sebastianak DEBAKO Elorrixan

Gaur hasi eta astelehenera arte ekintzaz betetako egitaraua prestatu dute Debako Elorriaga auzoan San Sebastianak ospatzeko: musika, herri-bazkariak, bertsolariak eta lehiaketak nagusituko dira. Gaur mus-txapelketa jokatu da 22:30ean, bihar mountain-bike lasterketa 11:00etan eta gauean afaria egingo dute Urberun, Izer eta Alaiber trikitilariekin. Domekan 11:00etan meza izango da, ondoren txakolina eta segidan zaldi-probak; 14:30ean, bestalde, bazkaria egongo da, bertsolariekin. Astelehenean, San Sebastian egunean, 11:00etako mezaren ondoren sagardo dastaketa eta idi-probak egongo dira, Olarrea eta Soarterekin. 14:30ean bazkaria eta arratsaldean txokolate-jana Lau Haizetan.



### San Antolin jaiak ELGOIBARREN

Gaurtik domekara arte ospatuko dira San Antolin jaietako lehenengo jai-egunak, datorren asteko zapatuan, hilaren 25ean amaitzeko. Gaur arratsaldeko 17:30ean erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira izango da, herriko dultzaineroekin; gaueko 22:00etan pilota-txapelketako finala jokatu da Ikastolan. Domekan, 16:30ean, "Itsasoan deidarra" antzerki musikatu egongo da ikusgai Herriko Antzokian.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

## hildakoak

- **Paco Bañares Bañares.** 70 urte. 2020-I-11.
- **Manuel Burdell Rodriguez.** 81 urte. 2020-I-11.
- **Regina Baraiazarra Bilbao.** 96 urte. 2020-I-11.
- **Angela Etxaniz Irureta.** 90 urte. 2020-I-12.
- **Antonio Carrero Garcia.** 90 urte. 2020-I-13.
- **Ignacio Gaminde Esnaola.** 94 urte. 2020-I-14.

## jaiotakoak

- **Rahaf Ahmed Elshafey.** 2019-XII-23.
- **Daniela Lizeth Peixoto Alvarado.** 2019-XII-27.
- **Lier De Andres Garitagoitia.** 2020-I-2.
- **Thiago Martin Luque Romero.** 2020-I-10.
- **Markel Reyes Peredo.** 2020-I-11.

## farmaziak

- Barixakua 17**  
EGUNEZ **Mendueta** (Urkizu, 6)
- Zapatua 18**  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Domeka 19**  
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Astelehena 20**  
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Martitzena 21**  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Eguaztena 22**  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 23**  
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Barixakua 24**  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

GAUEZ BETI - 2020AN-  
**Barandela** (Z. Agirre, 4)

## telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
- .....943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

## SUDOKUA

AURREKOAREN  
 EMAITZA

7	3	1	6	2	4	8	5	9
8	4	5	9	3	1	6	7	2
9	6	2	5	7	8	4	1	3
4	8	6	7	1	9	3	2	5
5	1	7	3	8	2	9	4	6
2	9	3	4	5	6	1	8	7
1	5	8	2	6	3	7	9	4
6	7	9	8	4	5	2	3	1
3	2	4	1	9	7	5	6	8

			3	9		5		
	3			4	1		8	
			1	8	6			
		7					1	
		8	3		6	5		
	1					4		
		6	4		3			
8		1	7				4	
	4		8	2				

## Barixakua 17

### IKUSKIZUN-BIRA

**18:00.** *"Hau bai abentura! Lur eta Amets"* filma aurkezteko. Armeria Eskolan.

### HITZALDIA

**19:00/21:00.** Lehen Sorospenen ingurukoa (doan). DYAre Eibarko ordezkariaren (Pagaegi, 5).

### KONTZERTUA

**22:00.** Gwendal taldearen kontzertua. 25 euro (17,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

## Zapatua 18

### GABONETAKO HAUR PARKEA

**11:00/14:00 & 16:30/20:30.** 2-12 urteko haurrentzat. 3 euro (doan EMGI-ko bonoarekin). Astelena frontoian.

### ANTZERKIA

**17:00.** *"Aioko"* txotxongilo antzerkia (Zurrunka Teatroya). 5 euro. Coliseoan.

### BISITA GIDATUA

**17:00.** Doakoa, Museoko erakusketa iraunkorra ezagutzeko, euskeraz (18:30ean gazteleraz). Izen-ematea: 943708446 telefonoan edo museoa@eibar.eus helbidean. Armagintzaren Museoa.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

### UMEENDAKO ZINEA

**18:00.** *"Mascotas 2"*. Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

### U30 GREBARAKO ARGAZKIA

**19:00.** Talde argazkia, U30rako deituta dagoen grebaren harira. Jarraian, kalejira. Greba batzordeak deituta. Untzagako harmailetan.

## Domeka 19

### KONTZERTUA

**12:30.** Danborrada kontzertua, Usartza Txistulari Taldearekin eta Eibarko Danborradako ordezkariarekin, metalek lagunduta. Coliseoan.



### LEHIAKETA

**16:30.** XXV. Gabonetako Marrazki Lehiaketa umeentzat eta, jarraian, txokolate-jana. As Burgas Galiziako Etxean.

### KIROLA FAMILIAN

**17:30/19:30.** Jolasteko gune irekia, Haur Hezkuntzako ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

### PATINAK IPURUAN

**17:45/19:45.** Patinatzeko pista. Ipurua kiroldegian.

## Astelehena 20

### ELKARRETARATZEA

**12:00.** Jubilatu eta Pentsiodunena, pentsio duinak eskatzeko. Untzagan.

### SOLASALDIA

**18:30.** Ondo Egindako Lana: Uxue Barkosi errekonozimendua, Xabier Lapitz kazetariak gidatuko duen solasaldian. Armeria Eskolan.

## Martitzena 21

### IKASTEN

**10:11.** Durangoko Arte Museora bisita, Alberto Dureroren aldibaterako grabatu erakusketa ikusteko. Jose Ignacio Olabek gidatuta. Trenaren irteera ordua Estaziñotik (10:12ean Ardantzatik).

### HITZALDIA

**11:00.** Pentsioen ingurukoa, Bizkaiko Pentsiodunen Plataformako Jon Fanoren eskutik. Antolatzailea: Eibarko Pentsionistak. Portalean.

### IKASTEN

**16:00/19:00.** Puntu-tailerra. **17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

## Eguaztena 22

### IKASTEN

**09:15.** Ibilaldia: Landa-Legutio. Bazkaria eraman. Autobusaren irteera ordua, Ego Gaietik.

### BILERA IREKIA

**18:30.** Akebaiko kideen eta herritarren artean ilusioa pizteko ekitaldiren bat pentsatzeko bilera irekia, Eibarren Akebaik deituta. Klub Deportiboan.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19:00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## Eguena 23

### IKASTEN

**10:00.** *"40tik 56ra bitarteko gerraostea"* hitzaldia, Antonio Riveraren eskutik. Sarrea librea. Armeria Eskolan.

### KALEETAN KANTUZ

**18:00.** Dantza taldearen entsegua. Untzagako jubilatutako etxean. **19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### LIBURU AURKEZPENA

**19:00.** *"Bi"*, Idoia Carramiñanaren olerki-liburuaren aurkezpena. Portalean (1. batzartokian).

## Erakusketak

### Otsailaren 9ra arte:

– *"Calibre 16"* T.A.C.O. Mexiko Arte Garaikide Tailerretako artisten kolektiboa (**Portalea**)





Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, NADIA, bixar 11 urte betetzen dozuz-eta. Jarraitu hain sinpatika. Musu bat aitxixa-amama eta gurasuen partez.



Zorionak, AINHOA, hillaren 16xan urtiak bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANER!, martitzenian 9 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat danon partez; eta potolua Liberen partez.



Zorionak, MAIALEN!!!, domeka honetan 8 urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Uxueren partez!



Zorionak, AIUR, bixar 3 urte beteko dozuz-eta. Musu bat aitxixa, amama, tio, tia eta, batez be, Izaro eta Eiderren partez.



Ongi etorri gurera, LERA maittia. Zorionak amatxo eta aitaxori. Famelixa guztiaren eta, batez be, Pello, Nile eta Polen partez.




Zorionak, EIDEN, astelehenian 3 urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, IZASKUN, errege egunian urtiak bete zenduaz-eta. Musu haundi bat lagun guztien partez.



Zorionak, ION, 23an, datorren egunian, urtiak egingo dozuz-eta. Ondo-ondo ospatu! Musu bat laguneren partez.



Zorionak, JANA (atzo) eta PABEN (gaur), urtiak egin dozuez-eta. Segi holakuak izaten. Famelixa guztiaren partetik.



Zorionak, MALEN, 5 urte bete dozuz-eta! Segi horren alai, sorgintxo. Musu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, NAHIAren partez.

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

18an: 19,45, 22:30

19an: 20:00

20an: 20:30

**"Richard Jewell"**

Zuzendaria: Clint Eastwood



(2 ARETOAN)

18an: 19,45, 22:30

19an: 17:00, 20:00

20an: 20:30

**"El oficial y el espía"**

Zuzendaria: Roman Polanski



(ANTZOKIAN)

18an: 17:00<sup>(1)</sup>, 19,45, 22:30

19an: 17:00<sup>(1 Aretoan)</sup>, 20:00

20an: 20:30

**"Bad Boys for life"**

Zuzendaria: Adil El Arbi




(ANTZOKIAN)

18an: 17:00<sup>(2 Aretoan)</sup>

19an: 17:00

**"Spy Cat"**

Zuzendaria: Lauenstein anaiak



**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Pisua salgai J. Etxeberria kalean. 3 logela, 2 egongela, sukaldia eta komuna. 85 m<sup>2</sup>. Berogailuarekin. Tel. 615-781231.
- Etxebizitza salgai Legarre-Gainen. Egoera eta prezio interesgarrian. Tel. 622-755365.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Lokala alokatzen da Eibarko erdialdean. 100 m<sup>2</sup>. Akademia edo fisioterapia-kontsulartako egokia. Tel. 606-065518.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ziurtagiriarekin. Tel. 631-389567.
- Emakumea eskaintzen da pisuak, lokalak edo tailerrak garbitzeko, nagusiak zaintzeko eta sukaldari jarduteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-035976.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-009215.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Esperientzia. Tel. 631-768803.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-439959.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta baserrian jarduteko. Tel. 632-423521.
- Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 680-808125.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 635-587617.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 602-049781.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauze ere. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-501003.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi malgua. Tel. 689-003537.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta dendari moduan. Administrazio-ikasketak eta esperientzia. Tel. 675-847035.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 605-598999.
- Gizon arduratsua eskaintzen da baserriko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere). Tel. 697-666992.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 642-597600.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-268671.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Ordu-tegi malgua. Tel. 679-912841.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Asteburuak barne. Tel. 612-562586. Diana.

- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 643-892696.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Orduka. Tel. 635-189294.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Arratsaldean eta asteburuetan. Esperientzia. Tel. 632-098382.

- Eibarko neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Titulazioarekin. Tel. 699-306873.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 655-094780.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuak barne. Tel. 643-278344.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 632-329213.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 680-526228.

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordu-tegi malgua. Esperientzia. Tel. 681-013032.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 642-995010.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 603-580369.

- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 632-776998.

### 4.2. Langile bila

- Dentista eta haginatarako higienista behar dira. Bidali curriculum: clinicadental-gestioncv@hotmail.com

- Emakumea behar da arratsaldetan umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Jornada erdirako. Tel. 943-206977.

- Abentura jardueretarako (paintball) monitorea behar dira asteburuetarako. Eusara jakitea beharrezkoa da eta gidatzeko baimena izatea baloratuko da. Tel. 660-450245. Ainhoa.

- Ilepaintzailea behar da asteburuetan Elgoibarko ileapaindegi baterako. Tel. 943-246225.

- Aho-haginetako higienista behar da. Jardunaldi osorako eta berehala hasteko. Bidali curriculum: hortzclinika.06@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo, Heziketa zikloak eta Unibertsitate mailako klase partikularrik ematen dira. 3 laguneko taldeak. Tel. 678-937827. Patricia.

- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## Logopedak

**AHOTS-LAN**  
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.  
943 202691  
ahotslan@gmail.com

**Diagnostikoa eta tratamendua**

Degluzio atipikoa	TDAH
Disfonia	Berbera arazoak
Ikaste-arazoak	TEA
	Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

**AROR**  
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

(Ume eta helduendako)

**Ana Artamendi**

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)  
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

## Okulistikak

**Oftalmologoak**  
Centro de Oftalmología Avanzada

**JOSE ALBERDI**  
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea  
943 20 19 82

**Recalde**  
Clínica Oftalmológica  
Oftalmologi Klinika

• Katarata ebakuntzak  
(lente multifokalarekin)

R.P.S. 234/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844  
www.clinicarecalde.com

## Podologoak

**ELENA AIZPUN**  
PODOLOGOA



838200124  
kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A  
943 12 14 93 / 696 555 208

**PODOLOGOA**  
Erdiko klinika




BIDEBARRIETA, 48  
EIBAR  
943 203050

ERDIKO KALE 54  
ARRASATE  
943 799746

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)  
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)  
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**



**Maidor Lopez Etxebarria**

Arragueta 2 Bis-B, Behea B  
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO**  
T. ORTOPEDICO



**Iñaki Rivero Zabaleta**

Calbeton, 4 - 2.  
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

## Psikologoak

**AMETS**  
PSIKOLOGIA KLINIKOA  
ETA OSASUN ZENTROA



BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa  
www.centrosamets.com

Coro Ortíz de Urbina - Master Praktika Klinikoa  
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.  
Tel. 675 70 68 07 - Trainer


**PSIKOTERAPIA ZENTRUA**



HAUR, NERABE ETA  
HELDUENTZAKO  
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66  
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea  
www.arratepsicoterapia.com

**Lorena Izaguirre Garcia**  
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA



Errebal, 15 - 1. ezk. ....EIBAR  
Zuberua, 4.....ZARAUTZ  
Tel. 943 831 618

**Psikologia klinika eta  
Psikoterapia zentroa**



Oscar Mondragon Lili  
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ  
Urkizu, 13 - behea  
Tel. 943206823 eta 686859023

## Psikoterapia

**FUB**  
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR



FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

**Medikuntza Psikiatrikoa**

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)  
615 71 54 04

Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)  
94 416 49 06

furizar1@yahoo.com

RPS: 32/17

# Esku onetan egotearen ziurtasuna.

20.000tik gora paziente pozik.  
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure  
irribarre zaintzen.



Zure irribarre onena geure  
laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17



**bista eder**

clinica dental - horts klinika

**Deitu** | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar

[www.bistaeder.es](http://www.bistaeder.es)